Garraioaren arloko administrazio orokorra	115,00	0,00%
Dbus	10.199.943,00	14,51%
Azpiegiturak	7.184.932,00	10,22%
HMZ: Zuzendaritza eta administrazioa	10.500,00	0,01%
Proiektu eta obrak	7.174.432,00	10,20%
JARDUKETA OROKORRAK	7.903.088,00	11,24%
Gobernu organoak	1.492.037,00	2,12%
Gobernu organoak	1.242.037,00	1,77%
Hiri proiektua	250.000,00	0,36%
Zerbitzu orokorrak	5.306.295,00	7,55%
Eraikinak	384.932,00	0,55%
Informatika (Udala)	80.000,00	0,11%
Informatika	939.976,00	1,34%
Ekialdeko distritua	385.153,00	0,55%
Agiritegia	685.000,00	0,97%
Barne zerbitzu orokorrak	232.153,00	0,33%
Ibilgailuak	38.000,00	0,05%
Ekipamendu-plana	220.939,00	0,31%
Herritarren parte hartzea	2.340.142,00	3,33%
Finantza eta zerga administrazioa	1.104.756,00	1,57%
Kudeaketa ekonomikoa	1.074.756,00	1,53%
Turismo-sektorearen jasangarritasuna eta modernizazioa	30.000,00	0,04%
GUZTIRA	70.306.690,00	100,00%

PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK

2023an Partaidetzako Aurrekontuen prozesua eraman da burura; horren bidez, donostiarrek proposatzen eta aukeratzen dute zer proiektu aintzat hartuko diren 2024ko eta 2025eko udal aurrekontuetan.

Prozesuan zehar, guztira 475 proposamen jaso ziren. Batzuk bateratu egin ziren errepikatzen zirelako, eta beste batzuk ez ziren aintzat hartu keak zirelako edo eduki ekonomikorik ez zutelako. Beraz, guztira **375 proposamen aztertu ziren**: horietatik 267 banakako pertsonak eginak ziren eta 108 elkarteek.

Eskabidean datuak generoaren arabera bereizita ematea eskatu zen, eta beraz, eskura ditugu xehetasun horiek, nahiz eta datu horietatik ezin automatikoki bereiz daitezkeen zeintzuk diren proposamena elkarte baten izenean egin duten pertsonak. Eta kontuan eduki behar da parte hartzeko prozesu honek aukera ematen duela pertsona batek eta berak proposamen bat baino gehiago egiteko. Hala bada:

Emakumeak	177
Gizonak	195
Ez binarioa	3
GUZTIRA	375

Dagokion arlori bideratu ziren proposamen guztiak. Nabarmenezkoa da proposamen bakar bat ere ez zegokiola Berdintasun arloari. Ondoko taulan zehazten dira arloak eta jasotako proposamen kopurua:

ARLOA	PORPOSAMEN KOP.
Euskara	1
Udaltzaingoa	1
Finantza Zuzendaritza	1
Sustapena	2
Lehendakaritza	2
Alkatetza	3
Donostiako Etxegintza	3
Gizarte Ekintza	7
Gizarte Sustapena eta Hezkuntza	7
Donostia Kultura	8
Osasuna eta Ingurumena	15
Proiektuak eta Obrak	26
Donostia Kirolak	32
Mugikortasuna	115
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak	149
GUZTIRA	375

Bozketa fasera igarotzeko, honako baldintza hauek bete behar ditu proposamen bakoitzak:

- Udal eskumenekoa izan behar du.
- Ez du udal politika orokorrekin kontraesanean egon behar.
- Interes publikoa izan behar du.
- Inbertsio bat dakarren proiektua izan behar du, urtean gauzatuko dena.
- Ez du partaidetzako prozesu baten emaitza ezabatu behar.
- Ez ditu hurrengo aurrekontuak konprometituko.
- Onartua behar du bideragarritasun azterlana.
- Gehienez ere 300.000 €-ko inbertsioa eskatu behar du.

Aztertu ondoren, 116 proposamenek betetzen zituzten baldintza horiek, eta beraz, horietan eraman ziren bozketara. Hona hemen xehetasunak, generoaren arabera bereizita:

	Hasierako proposamenak	Bozketara eramandako proposamenak
Emakumeak	177	54
Gizonak	195	61
Ez binarioa	3	1
GUZTIRA	375	116

Bozketa fasean 5.939 lagunek parte hartu zuten (2021eko edizioan 3.723 lagunek parte hartu zuten), **3.440 emakumek (% 58) eta 2.499 gizonak (% 42)**. Parte hartzeko prozesu horretan proposamenak bereiz egiten eta bozkatzeko dira, alde batetik Ekialdeko Barrutian eta bestetik hiriaren gainerakoan.

Hirian (salbu eta Ekialdeko Barrutian), bozketa egin ondoren, 5 proiektu aukeratu dira 2024ko aurrekontuetan sartzeko: haur parkeetan oinarritzen dira 2, eta plaza publikoak hobetzeko beste 2, kasu batzuetan estalkiak instalatuz, eta beste proposamena Skate Park bati buruzkoa da. Proiektu horiek Loiolako Erriberak, Amara Berri eta Gros auzoetan eramango dira burura.

Bi proposamen auzo elkarte batek egin zituen, beste bi proposamen bi gizonak eta bat emakume batek. Ez dago berdintasunari lotutako proiekturik, ez dago emakumeen elkarte batek edo elkarte feminista batek proposatutako proiekturik.

2025ean 8 proiektu gauzatzeko hasiko dira: gehienak mugikortasunarekin lotuta daude (bidegorriak, istripuak saihestea, asfaltatzea, bide publikoak hobetzea..), haur parke bat estaliko da, eta beste proposamen batzuk hiri mantentzearekin lotuta daude. Proiektuetako bat hiri osoa hartzen du, 2 proiektu Berio aldean eramango dira burura, eta gainerakoak Hirigunean, Loiolako Erriberak, Amara Berri eta Egia auzoetan.

8 proposamen horiek hauen eskutik egin dira: bi proposamen bi elkarten eginak dira, lau proposamen gizonetako eginak dira, eta bi emakumeek. **Kasu honetan ere ez dago emakumeen elkarteek edo elkarte feministek proposatutako proiekturik.**

Ekialdeko Barrutiari dagokionez, boto gehien jasotako 10 proposamenen artean, 3 haurrentzako kirol parke edo kantzekin lotuta daude, 2 espazio publikoetako argiztapenarekin, 2 zaharren egoitzetan egin beharreko moldaketekin, eta gainerakoak bidegorriekin eta errepede eta lorategien mantentze lanekin.

8 proposamen elkarten eskutik eginak dira, eta beste biak gizonetako batek eta emakumezko batek eginak dira.

Ondorioz, irizpide horiek aplikatuz eta kontuan harturik 2025eko partida ez dela Udalaren eta Barrutiaren aurrekontua onartu arte ezagutuko, hauexek dira lizitazio prozesua abiaraziko duten 5 proiektuak:

- Haurrentzako kiroldegi kantxa Buenavistan.
- Guardaplata elkarteko komunak egokitzea.
- Oinezkoen pasabidea Txaparrenen.
- Buenavista Parteko argiztapena
- Km0 eta bigarren eskuko azoka.

Kasu honetan ere ez dago berdintasunari lotutako proiekturik, ezta emakumeen elkareren batek edo elkarte feministaren batek proposatutako proiekturik ere.

5. GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZI HANDIENA DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA ETA GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA

2024ko aurrekontuari begira, 2023an bezalaxe, **guztira 44 programa** aztertuko dira.

Hortaz, **aurrekontu programen guztizkoaren % 41,12** aztertuko da, hau da, **udal aurrekontu osoaren % 64,58**, 2023ko ekitaldiko ehunekora iritsi gabe (aurrekontu osoaren % 65,69).

Programa horien **zenbateko globala +% 2,91 igo da 2023koarekin alderatuta**, badira aurrekontu zuzkidura emendatu duten programak eta badira apaldu dutenak, jarraian adierazten den bezala:

- **Programa horietatik 34k** 2023ko aurrekontuetan baino aurrekontu **handiagoa** dute, udal aurrekontu osoaren % 43,64 hartzen dute. Horietako 23 programatan, **2024rako aurrekontu globalaren igoeraren ehunekoa (+% 4,68) baino handiagoa da aurrekontuaren igoera**, eta programa horiek aurrekontu osoaren % 34,06 hartzen dute.
- **9 programak**, aurrekontu osoaren % 20,92 hartzen dutenak, **apaldu egin dira** beren aurrekontu zuzkiduran.
- **Programa batek** 2023ko zuzkidura berberari **eusten dio** (Donostia Lagunkoia).

Hurrengo orrialdeetan aztertutako programak zehazten dira, eta taula batean jasotzen dira programen banaketa, ondoko sailkapenaren arabera:

- Udal aurrekontua baino igoera handiagoa (+% 4,68)
- Udal aurrekontua baino igoera txikiagoa.
- Jaitsiera eta/edo berdina.

Ondoren, **programa bakoitzaren azterketa zehatza** aurkeztuko dugu (*Aurrekontu eboluzioa, gastu eraldatzailea eta gomendioak*), eta dokumentuaren amaieran **gastu eraldatzaile globalaren eboluzioaren laburpen** atal bat sartuko dugu.

AZTERTUTAKO AURREKONTU PROGRAMAK	2023		2024		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
Udaltzaingoa	26.399.781,00	%8,70	28.692.029,00	%9,19	2.292.248,00	%8,68
Mugikortasun bertikala	565.000,00	%0,19	271.944,00	%0,09	-293.056,00	-%51,87
Hiri mugikortasuna	10.513.267,00	%3,46	12.072.981,00	%3,87	1.559.714,00	%14,84
Hirigintza	13.462.781,00	%4,44	15.535.925,00	%4,97	2.073.144,00	%15,40
Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	18.532.400,00	%6,11	20.932.252,00	%6,70	2.399.852,00	%12,95
Bide publikoak	2.585.948,00	%0,85	3.679.121,00	%1,18	1.093.173,00	%42,27
Herri-argiteria	5.984.251,00	%1,97	5.577.348,00	%1,79	-406.903,00	-%6,80
Parke eta lorategiak	8.282.161,00	%2,73	8.983.256,00	%2,88	701.095,00	%8,47
Hondartzak	3.465.048,00	%1,14	3.445.011,00	%1,10	-20.037,00	-%0,58
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.873.323,00	%1,61	4.998.949,00	%1,60	125.626,00	%2,58
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	807.328,00	%0,27	839.867,00	%0,27	32.539,00	%4,03
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	2.164.537,00	%0,71	2.340.956,00	%0,75	176.419,00	%8,15
Donostia Lagunkoia	99.470,00	%0,03	99.470,00	%0,03	0,00	%0,00
Apartamentu tutelatuak	2.111.671,00	%0,70	2.256.313,00	%0,72	144.642,00	%6,85
Gizarte abegi etxea	1.420.362,00	%0,47	1.810.430,00	%0,58	390.068,00	%27,46
Gizarteratzea	4.403.978,00	%1,45	5.337.593,00	%1,71	933.615,00	%21,20
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	3.425.142,00	%1,13	3.502.716,00	%1,12	77.574,00	%2,26
Adineko pertsonen sustapena	671.469,00	%0,22	688.904,00	%0,22	17.435,00	%2,60
Zaharren egoitzak	1.089.373,00	%0,36	907.465,00	%0,29	-181.908,00	-%16,70
Etxez etxeko laguntza	10.040.717,00	%3,31	9.948.044,00	%3,19	-92.673,00	-%0,92
Gizarte larrialdietarako laguntzak	3.250.626,00	%1,07	3.728.741,00	%1,19	478.115,00	%14,71
Berdintasuna	1.063.697,00	%0,35	1.078.736,00	%0,35	15.039,00	%1,41
Osasun sustapena	199.069,00	%0,07	200.323,00	%0,06	1.254,00	%0,63
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	995.088,00	%0,33	1.324.588,00	%0,42	329.500,00	%33,11
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	8.157.856,00	%2,69	8.809.006,00	%2,82	651.150,00	%7,98
Udalaren musika eta dantza eskola	5.368.419,00	%1,77	5.746.790,00	%1,84	378.371,00	%7,05
Heziketarako programak	271.174,00	%0,09	326.360,00	%0,10	55.186,00	%20,35
Giza eskubideak	605.583,00	%0,20	607.150,00	%0,19	1.567,00	%0,26
Kultur aniztasuna	425.835,00	%0,14	426.289,00	%0,14	454,00	%0,11
Donostia Kultura	31.799.048,00	%10,48	33.125.807,00	%10,61	1.326.759,00	%4,17
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	171.686,00	%0,06	178.481,00	%0,06	6.795,00	%3,96
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	690.995,00	%0,23	711.322,00	%0,23	20.327,00	%2,94
Euskara	3.072.872,00	%1,01	3.039.641,00	%0,97	-33.231,00	-%1,08
Zahar etxeak	1.350.555,00	%0,45	2.296.725,00	%0,74	946.170,00	%70,06
Gazteria	2.458.610,00	%0,81	2.593.071,00	%0,83	134.461,00	%5,47
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	3.851.965,00	%1,27	6.154.220,00	%1,97	2.302.255,00	%59,77
Donostia Kirola (kirol ekintzak)	3.310.954,00	%1,09	3.610.128,00	%1,16	299.174,00	%9,04
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	12.456.167,00	%4,10	13.708.529,00	%4,39	1.252.362,00	%10,05
Donostia Turismo	4.446.023,00	%1,46	4.399.546,00	%1,41	-46.477,00	-%1,05
Donostiako Sustapena, S.A.	22.745.876,00	%7,49	15.285.464,00	%4,89	-7.460.412,00	-%32,80
Dbus	64.254.021,00	%21,17	58.287.949,00	%18,66	-5.966.072,00	-%9,29
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.432.213,00	%0,47	1.507.543,00	%0,48	75.330,00	%5,26
Proiektu eta obrak	7.472.722,00	%2,46	9.694.373,00	%3,10	2.221.651,00	%29,73
Herritarren parte hartzea	2.739.293,00	%0,90	3.571.996,00	%1,14	832.703,00	%30,40
GUZTIRA	303.488.354,00	%100,00	312.333.352,00	%100,00	8.844.998,00	%2,91
AURREKONTU OSOAREN GAINEKO %	%65,69		%64,58			

Udal aurrekontua baino IGOERA handiagoa	Udal aurrekontua baino IGOERA txikiagoa
<ol style="list-style-type: none"> 1. Udaltzaingoa (%+8,68) 2. Hiri mugikortasuna (%+14,84) 3. Hirigintza (%+15,40) 4. Etxebizitza (%+12,95) 5. Bide publikoak (%+42,27) 6. Parke eta lorategiak (%+5,41) 7. Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza (%+8,15) 8. Apartamentu tutelatuak (%+6,85) 9. Gizarte abegi etxea (%+27,46) 10. Gizarteratzea (%+21,20) 11. Gizarte larrialdietarako laguntza (%+14,71) 12. Osasun publikoa eta animalien ongizatea (%+33,11%) 13. Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua (%+7,98) 14. Udalaren musika eta dantza eskola (%+5,97) 15. Heziketarako programak (%+20,35) 16. Zahar etxeak (%+70,06) 17. Gazteria (%+5,47) 18. Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) (%+59,77) 19. Donostia Kirola (%+9,04) 20. Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola) (%+10,15) 21. Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa (%+5,26) 22. Proiektu eta obrak (%+29,73) 23. Herritarren parte hartzea (%30,40) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gizarte zerbitzuen zentroak (%+2,58) 2. Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa (%+4,03)) 3. Adin txikikoen prebentzioa eta familia (%+2,26) 4. Adineko pertsonen sustapena (%+2,60) 5. Berdintasuna (%+1,41) 6. Osasun sustapena (%+0,63) 7. Giza eskubideak (%+0,26) 8. Kultura aniztasuna (%+0,11) 9. Donostia Kultura (%+4,17) 10. Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia) (%+3,96) 11. Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak) (%+2,94)
JAITSIERA eta/edo BERDINA	
<ol style="list-style-type: none"> 1. Mugikortasun bertikala (%-51,87) 2. Argiteria publikoa (%-6,80) 3. Hondartzak (%-0,58) 4. Zaharren egoitzak (%-16,70) 5. Etxez etxeko laguntza (%-0,92) 6. Euskara (%-1,08) 7. Donostia Turismo (%-1,05) 8. Donostiako Sustapena, S.A. (%-32,80) 9. Dbus (%-9,29) 10. Donostia Lagunkoia (%-0,00) 	

Oharra: Ehunekoak erreferentzia egiten dion administrazio-unitatearen guztizko gastuaren igoerari, jaitsierari edo mantentzeari buruzkoak dira.

5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

9 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Udaltzaingoa.
- Mugikortasun bertikala.
- Hiri mugikortasuna.
- Hirigintza.
- Donostiako Etxegintza Erakunde Publikoa
- Bide publikoak.
- Herri argiteria.
- Parke eta lorategiak.
- Hondartzak.

5.1.1. UDALTZAINGOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Udaltzaingoa programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **28.692.029 €-ko** zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 5,93** hartzen du. 2023an 26. 399. 781 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 5,71. Beraz, **2. 292. 248 €-ko igoera** izan du programa honek (**+% 8,68**).

UDALTZAINGOA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	24.797.213,00	27.020.420,00	2.223.207,00	%8,97
2. kapitulua	1.602.568,00	1.602.567,00	-1,00	-%0,00
6. kapitulua	0,00	69.042,00	69.042,00	
TOTAL	26.399.781,00	28.692.029,00	2.292.248,00	%8,68

1. kapitulua da (pertsoneko gastuak) programan ehuneko handiena hartzen duen gastua, nagusiki horretan oinarritzen da aurrekontuaren igoera. **Generoaren ikuspegitik kapitularik interesgarriena da**, programa horretako langileak baitira **eraso matxistak nozitzen dituztenei arreta ematen dietenak**.

Alde batetik, Udalean onartutako soldata igoeran oinarritzen dira igoeraren arrazoiak. Eta, bestetik, 2023ko gastu errearen doikuntzan, kontuan hartu behar baita 2023ko bigarren seihilekoan 9 agente berri kontratatu zirela plantillan, eta 2024an kontratazio horiek urte osoan eragingo dutela.

2. kapitulari dagokionez, zenbatekoa ia berbera da. Gainera, 2024an, 6. Kapituluan zuzkidura bat egin da aplikazio informatikoetan eta Zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresnerian baliatzeko.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

-% 4an murriztu da indarkeria matxistari arreta emateko agenteen prestakuntzara bideratutako **gastu** eraldatzailearen ekarpena.

UDALZAINGOA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	3.000,00	2.880,00	-120,00	-%4,00
GUZTIRA	3.000,00	2.880,00	-120,00	-%4,00

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Fokua EAEn emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko hirugarren akordioaren** tokiko inplementazioan jartzea: baliabideak jartzea, zerbitzuak dimentsionatzea, prestakuntza aurreikustea, arloen eta erakundeen arteko koordinazioa, etab.

5.1.2. MUGIKORTASUN BERTIKALA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Mugikortasun Bertikala programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **271.944 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,06** hartzen du. 2023an 565. 000 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,12. Beraz, 2024an **-293. 056 €-ko** jaitsiera izan du (-% 51,87), aurreko ekitaldian abiatutako jaitsierari jarraipena emanez. 2023an, programa hori +% 61,23 igo zen aurreko urtearekin alderatuta.

MUGIKORTASUN BERTIKALA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	565.000,00	271.944,00	-293.056,00	-%51,87
TOTAL	565.000,00	271.944,00	-293.056,00	-%51,87

Zenbateko osoa bideratzen da 6. kapitulura, 601.01 Igoailuak partidara, hiri barnean irisgarritasuna hobetzea ahalbidetzen duten igogailuak eraikitzeke.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzaileerako berriazko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Programa honetako **inbertsioak** garrantzizkoak dira kontziliazioa eta erantzukidetasuna hobetzen laguntzen dutelako (mugikortasuna eta irisgarritasuna). Horrexegatik gomendatzen dugu **hautapen irizpideetan** genero irizpide berberak sartzea ikuspegi interseksional batetik: sexua, adina, errenta, puntu kritikoak, etab.
- ✓ **Genero klausulak** ezartzeko prestakuntza zabaltzea, **arloko langileek** Berdintasun Arloak **gai horretan antolatutako barne prestakuntzetan parte hartuz**.
- ✓ **Jarraipen sistematikak** ezartzea prestakuntza horietan ikasitako praktikak abian jarri direla egiaztatzeko, **genero klausulen integrazio mailaren jarraipena eginez**.

5.1.3 HIRI MUGIKORTASUNA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hiri Mugikortasuna programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **12.072.981 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 2,50 hartzen** du. 2023an 10. 513. 267 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 2,28. Beraz, **+1. 559. 714 €-ko igoera** izan du programa honek (**+% 14,84**).

HIRI MUGIKORTASUNA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	6.651.972,00	7.515.271,00	863.299,00	%12,98
2. kapitulua	2.434.632,00	2.522.620,00	87.988,00	%3,61
4. kapitulua	9.240,00	9.240,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	1.417.423,00	2.025.850,00	608.427,00	%42,92
GUZTIRA	10.513.267,00	12.072.981,00	1.559.714,00	%14,84

Aurreko ekitaldian bezala, 4. Kapituluak zenbateko berberari eusten dio 2024an. Gainerako kapituluek igoera handiagoak edo txikiagoak izan dituzte, hala nola:

- **1. Kapituluari** igoera +% 12,98koa da, izan ere, soldaten igoera orokorraz gain (+% 2,5), 2024an beste 6 mugikortasun agente aurreikusi dira plantillan kontuan hartuta 2023ko gastu erreala. Gainera, lehendik beste zuzendaritza batean zegoen lanpostu bat lekuz aldatu da, nahiz eta jatorrizko lanpostura itzuli den.
- **2. Kapituluari** igoera funtsean partida jakin batzuen murrizketaren eta beste bi partida berriren emaitza da (227.13.05 Emisio gutxiko eremuetako instalazioak mantentzea, 80.000 €-ko zenbatekoarekin, eta 227.13.06 Bide segurtasunerako instalazioak mantentzea, 166.920 €-ko zuzkidurarekin).
- **6. Kapituluari** dagokionez, hauexek dira programa honetan 2024. urterako aurreikusitako inbertsioak:

HIRI MUGIKORTASUNA		2.025.850,00
601.03	Erregina Erregentearen berrantolaketa	500.000,00
623.02	Instalazio semaforikoak	341.846,00
601.02	Zurriola zubiko espaloia handitzea	340.000,00
601.06	Jai Alaiko tunela	300.000,00
601.04	Marrutxipiko lotura-proiektua GI-20 errepidean (Donostiako saihesbidea)	268.886,00
601.01	Bide-segurtasuneko jarduketak	150.000,00
601.05	Kontxako bidegorria	125.118,00

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan identifikatutako **gastu eraldatzailea** funtsean **mugikortasunaren astearekin** lotuta dago **(500 €)**.

Era berean, autodefentsa feminista gaien prestakuntza ematea aurreikusten da, baina zenbateko hori (1.000 €) Udaleko berdintasun prestakuntza orokorreko aurrekontu zuzkiduran jasota dago, eta 2024. Urteari begira 31.000 €-koa da zuzkidura hori.

Bestalde, programa horren bidez Mugikortasun Aktiboaren Behatokia (MAB) sustatzen dela nabarmendu behar dugu; urtero txosten bat egiten da emaitzak kontuan hartuta, baina oraindik ezin izan ditugu datuak genero azterketaren ikuspuntutik eskuratu.

Azkenik, **40.000 €** aurreikusten dira **Egiako Galtzadako oinezkoentzako Plataforma goratua eraikitzeko**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Erreferentzia gisa hartzea **genero eraginari buruzko txostena** eta Berdintasun arloaren ondorengo egiaztapen txostena, "**Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planari**" (HMIP) **buruzkoa, ikuspegi feminista eta genero ikuspegia duen hiri mugikortasunaren diseinua** ekarriko duten neurrien ezarpenean aurrera egiteko.
- ✓ **Arloen arteko taldeak** inbertsioak eta/edo jarduerak hautatzeko orduan **puntu kritiko**en maparen jarraipena egiteko emandako **gomendioak** betetzen jarraitzea.

5.1.4 HIRIGINTZA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hirigintza programa **Etxebizitza eta hirigintza** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **15. 535. 925 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 3,21** hartzen du. 2032an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 13. 462. 781 €-koa, aurrekontu osoaren % 2,91. Beraz, **+2. 073. 144 €-ko igoera** izan du programa honek **(+% 15,40)**.

HIRIGINTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.402.251,00	4.446.940,00	44.689,00	%1,02
2. kapitulua	286.301,00	286.301,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	4.915.778,00	5.376.892,00	461.114,00	%9,38
7. kapitulua	3.858.451,00	5.425.792,00	1.567.341,00	%40,62
GUZTIRA	13.462.781,00	15.535.925,00	2.073.144,00	%15,40

Zuzkidura aldea batez ere **6. kapituluko** igoeran oinarritzen da (+% 9,38), izan ere, gora egin du inbertsioen zenbateko globalak 2024. urterako. Eta **7. kapitulua** ere nabarmen igo da (**+% 40,62**) era berean nabarmen handitu direlako obra desberdinetako Hitzarmen Batzarretarako ekarpenak: Illarra eta Infernua, ondoren emandako xehetasunen arabera:

HIRIGINTZA	5.425.792,00
781.03 Infernua, Hitzarmen-batzarretarako ekarpenak	5.221.598,00
781.02 Illarra, Hitzarmen-batzarretarako ekarpenak	204.194,00

6. kapituluari dagokionez, ondoko taulan zehazten dira inbertsioak eta zenbatekoak. Genero ikuspuntutik, aipatzekoa da **plangintzan genero eraginaren ebaluazioa egiteko aurreikusitako zenbatekoa (15.000 €) eta hurrengo bi ekitaldietarako zuzkidura hori errepikatzeko konpromisoa** (kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea aurreikusten da iraupen horrekin).

Halere, inbertsio partida guztietan, **nola diseinuan hala gauzatzean, gomendagarria da genero ikuspegia txertatzea**. Bereziki Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzean.

HIRIGINTZA	5.376.892,00
601.02 Hiri Lorategia Urbanizazioa	3.062.284,00
643.04 Antolatzeko eta gauatzeko lanak	850.000,00
600.01 Erabilera orokorrerako inbertsioa lurretan	450.000,00
643.03 Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	350.000,00
643.01 Hiri-antolamenduko plan orokorra	350.000,00
601.07 Arteleku plaza	152.036,00
601.03 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta urbanizazioa	147.572,00
643.02 Genero inpaktua plangintzan	15.000,00

- PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2023an bezala, **6. Kapitulu**an zentratzen da gastu eraldatzailea, zenbateko bertsuarekin, **15.000 €**. Zenbateko hori **643.02 Genero eragina plangintzan partidaren baitan dago**, eta datozen bi ekitaldietan (**2025koa eta 2026koa**) zenbateko berdinari eusteko konpromisoa dago.

HIRIGINTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	15.000,00	15.000,00	0,00	0,0%
GUZTIRA	15.000,00	15.000,00	0,00	%0,00

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berriaren berrikuspenean eta erredakzioan genero ikuspegia txertatzen dela ziurtatzea: 2024an, plan orokorraren jendaurreko erakusketa prozesuan, genero ikuspegia duen partaidetzan sakonduz.

5.1.5. DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostiako Etxegintza enpresa publikoa **Etxebizitza eta hirigintza** gastu politikan sartzen da. 2024ko aurrekontuan +% 12,95 igo da, guztira **20.932.252 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 4,33** hartzen du. 2023an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 18.532.400 €-koa, aurrekontu osoaren % 4,01.

ETXEGINTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.074.000,00	2.388.000,00	314.000,00	%15,14
2. kapitulua	3.798.000,00	4.000.852,00	202.852,00	%5,34
3. kapitulua	549.000,00	2.203.000,00	1.654.000,00	%301,28
6. kapitulua	6.364.400,00	6.583.400,00	219.000,00	%3,44
9. kapitulua	5.747.000,00	5.757.000,00	10.000,00	%0,17
GUZTIRA	18.532.400,00	20.932.252,00	2.399.852,00	%12,95

Batez ere **3. Kapituluko igoera** nabarmentzen da, Euriborraren eta KPIren igoerak eraginda (adinekoentzako apartamentuen erosketa). Bestalde, **1. Kapituluko igoera** ordainsarien igoera orokorraren (% 2,5), hiru eraikuntza teknikariren gehikuntzaren eta birgaitzeko laguntzak kudeatzeko Administratzaile baten gehikuntzaren emaitza da.

Udalak 7.156.000 €-ko ekarpena egingo du 2024an, 3.599.000 € gastu arruntean eta 3.557.000 € kapital gastuan. 2023an 2.965.000 €-ko ekarpena egin zuen: 2.915.000 € gastu arruntean eta 50.000 € kapital gastuan.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako **berariazko partidarik** identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Etxegintzari emandako eskumenei erantzuteko ekintza ildoak/neurriak/konpromisoak identifikatzea EAEn emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko hirugarren akordioaren bidez.**
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura bitokien gutxieneko bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak arautzen dituen ekainaren 28ko **80/2022 Dekretu berriaren aplikazioaren eragina balioestea.**
- ✓ Amara kaleko etxebizitzak eraikitzeke proiektuaren barruan, Osoko Bilkurak (2023/05/03) **Emakumeen Etxe berrirako** etxabeak gaitzeko hartutako konpromisoari eustea.

5.1.6 BIDE PUBLIKOAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Bide Publikoak aurrekontu programa **Etxebizitza eta hirigintza** gastu politikan sartzen da. Programa honen aurrekontu zuzkidura **igo egin da 2023koaren aldean (+% 42,27)**, guztira **3. 679. 121 €-ko** aurrekontua du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,76** hartzen du. 2023an 2. 585. 948 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,56.

BIDE PUBLIKOAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	716.781,00	723.954,00	7.173,00	%1,00
2. kapitulua	1.219.167,00	1.180.167,00	-39.000,00	-%3,20
6. kapitulua	650.000,00	1.775.000,00	1.125.000,00	%173,08
GUZTIRA	2.585.948,00	3.679.121,00	1.093.173,00	%42,27

6. kapituluan gertatu da igoera esanguratsua (+1.125.000 €, +% 173,08), eta hauexek dira aurreikusitako inbertsioen xehetasunak:

BIDE PUBLIKOAK		1.775.000,00
601.05	Salamanca pasealekuko baranda berritzea	1.000.000,00
601.01	Barandak eta hiri-altzariak berritzea eta pintatzea	400.000,00
601.02	Haur parkeak (berrikuntzak)	375.000,00

2. kapitulari dagokionez, **-39.000 €-an murriztu da 221.14 Hiri altzariak partida** 2023an 50.000 €-tan **desagerrarazi** ondoren eta programako partida batzuen jaitsieraren edo igoera guztiz apalaren ondorioz.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

Genero ikuspegitik, egin beharreko inbertsioen xehetasun handiagorik izan gabe, gure ustez garrantzitsuak dira 601.02 Irisgarritasuna eta espazio publikoak (puntu kritikoak) eta **601.02 Haur parkeak** partidak, diseinuan aldatetak egiteko bideratzen badira.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Genero klausulak** ezartzeko **prestakuntza zabaltzea**, arloko langileek Berdintasun Arloak gai horretan antolatutako barne prestakuntzetan parte hartuz.
- ✓ **Jarraipen sistematikak** ezartzea prestakuntza horietan ikasitako praktikak abian jarri direla egiaztatzeko, **genero klausulen integrazio mailaren jarraipena** eginez.

5.1.7. HERRI ARGITERIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Herri argiteria aurrekontu programa **Komunitate Ongizatea** gastu politikan sartzen da. 2024ko aurrekontuak **5. 577. 348 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 1,15** hartzen du. 2023an zuzkidura handiagoa izan zuen, 5. 984. 241 €-koa, aurrekontu osoaren % 1,30. Beraz, **-406. 903 €-ko jaitsiera** izan du programa honek (-% 6,80).

HERRI ARGITERIA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	51,00	0,00	-51,00	-%100,00
2. kapitulua	5.924.200,00	5.517.348,00	-406.852,00	-%6,87
6. kapitulua	60.000,00	60.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	5.984.251,00	5.577.348,00	-406.903,00	-%6,80

Jaitsiera batez ere **2. Kapitulan gertatzen da, eta funtsean energia elektrikoaren partidan aurreikusitako zenbateko txikiagoaren ondorioa da**, bigarren urterako horniduraren prezioaren baldintzak hobetu direlako. **1. Kapitulu**a guztiz ezabatu da 2022an barne mailan gauzatutako aldatetaren ondorioz.

6. kapitulari dagokionez, eutsi egiten zaio energia eraginkortasuna hobetzeko Neurrietara bideratutako 60.000 €-ko zuzkidurari.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Aurreko urteetako gomendioari eusten diogu, hau da, **argiteria publikoaren diseinuan genero ikuspegia txertatzeko gomendioari**, energia eraginkortasuneko faktoreak eta espazio publikoan segurtasuna hautemateko faktoreak uztartuz.

5.1.8. PARKE ETA LORATEGIAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Parke eta lorategiak aurrekontu programa **Ingurumena** gastu politikan sartzen da. 2024ko aurrekontuan **8.983.256 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 1,86** hartzen du. 2023an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 8.282.161 €-koa, aurrekontu osoaren % 1,79. Beraz, **701.095 €-ko igoera** izan du programa honek **(+% 8,47)**.

PARKE ETA LORATEGIA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	731.012,00	738.516,00	7.504,00	%1,03
2. kapitulua	6.641.149,00	6.854.740,00	213.591,00	%3,22
6. kapitulua	910.000,00	1.390.000,00	480.000,00	%52,75
GUZTIRA	8.282.161,00	8.983.256,00	701.095,00	%8,47

Programaren igoera batez ere 6. Kapitulan metatzen da, +% 52,75, ondoko taulan jasotako xehetasunen arabera:

PARKE ETA LORATEGIA	1.390.000,00
601.01 Jarduerak zuzkitzen, txorikoetan eta berdeguneetan	1.150.000,00
623.02 Ureztatze sisteman hobekuntzak	140.000,00
609.01 Mintegia handitzea	100.000,00

Batez ere 601.01 Jarduerak zuzkitzen, txorikoetan eta berdeguneetan partida handitu da, 2023an 710.000 €-ko zuzkidura izan zuen eta 2024an 1.150.000 €-koa. Partida hau **garrantzi handikoa da genero ikuspegitik, hiriaren erabilera komunitarioa** ahalbidetzen baitute jarduerak horiek. Halere, ez dago jarduerak horien xehetasun espezifikorik.

Bestalde, partida berri bat sartu da, 609.01 Mintegia handitzea, 100.000 €-ko zenbatekoarekin. Eta alderantziz, apaldu egin da 623.02 Ureztatze sisteman hobekuntzak partida, 2023ko 200.000 €-tik 2024ko 140.000 €-ko kopurura.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzaileko **berariazko partidarik identifikatu**.

• **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdeguneen diseinuan eta xendren hobekuntzan **genero ikuspegia txertatzea**.
- ✓ Parke, lorategi eta kidekoen mantentze lanetan lehentasunez aintzat hartzea Mapan identifikatutako **puntu kritikoak**.
- ✓ Berdintasun arloak antolatutako barne prestakuntzetan **parte hartzea** kontratazioan **genero klausulak** txertatzeko.
- ✓ Jarraipen **sistematikak** ezartzea prestakuntza horietan ikasitako praktikak abian jarri direla egiaztatzeko, **genero klausulen integrazio mailaren jarraipena** eginez.

5.1.9 HONDARTZAK

• **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hondartzak aurrekontu programa **Ingurumena** gastu politikan sartzen da. 2024ko aurrekontuan **3. 445. 011 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,71** hartzen du. 2023an zuzkidura handiagoa izan zuen, 3. 465. 048 €-koa, aurrekontu osoaren % 0,75. Beraz, **-20. 037 €-ko** jaitsiera izan du programa honek (-% 0,58).

HONDARTZAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	117.316,00	117.077,00	-239,00	-%0,20
2. kapitulua	3.097.732,00	3.177.934,00	80.202,00	%2,59
6. kapitulua	250.000,00	150.000,00	-100.000,00	-%40,00
GUZTIRA	3.465.048,00	3.445.011,00	-20.037,00	-%0,58

Jaitsiera hori funtsean 2022an 6. Kapituluan jasotako partidari (623.05 Zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresneria) oinarritzen da, 2024ko ekitaldiari begira -100.000 €-ko kopuruan apaldu baita.

HONDARTZAK	150.000,00
623.05 Zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresneria	150.000,00

Ez dugu inbertsioen xedearen xehetasun espezifikorik biltzeko aukerarik izan.

• **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzaileerako **berriazko partidariak** identifikatu.

• **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun Arloarekin bideratutako koordinazio lanari jarraipena ematea Indarkeria matxistaren aurrean sentsibilizatzeko, prebenitzeko eta arretea emateko kanpainetan.

5.2. BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK

14 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Berdintasuna.
- Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza.
- Donostia Lagunkoia.

GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA

- Gizarte zerbitzuen zentroak.
- Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa.
- Apartamentu tutelatuak.
- Gizarte abegi etxea.
- Gizarteratzea.
- Adin txikikoen prebentzioa eta familia.
- Adineko pertsonen sustapena.
- Zaharren egoitzak
- Etxez etxeko laguntza.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak.
- Zaharren etxea (programa hori atal honetan jaso dugu *gizarte ekintzaren zuzendaritzapean* dagoelako. Halere, aurrekontuari dagokionez, Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena eta Kultura arloko gastu politikan sailkatzen da).

5.2.1. BERDINTASUNA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Berdintasuna programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2024ko aurrekontuan **1.078.736 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,22** hartzen du. 2023an zuzkidura pixka bat txikiagoa izan zuen, 1. 063. 697 €-koa, aurrekontu osoaren % 0,23. Beraz, guztira + **15.039 €-ko** iguera izan du programa honek (**+% 1,41**).

BERDINTASUNA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	469.569,00	471.540,00	1.971,00	%0,42
2. kapitulua	319.903,00	332.971,00	13.068,00	%4,08
4. kapitulua	224.225,00	224.225,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	50.000,00	50.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	1.063.697,00	1.078.736,00	15.039,00	%1,41

Aldea batez ere 2. Kapitulan gertatu da +13.068 €-an handitu baita (+% 4,08). Igoera hori 227.01 Garbiketa lanak partidaren igoseraren ondorioa da, 2023an 17.725 €-ko zuzkidura izan baitzuen eta 2024an 30.793 €-ko zuzkidura baitu.

2. kapituluko gainerako partidek 2023ko aurrekontu zuzkidura berdinari eusten diote.

226.99.01 Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak partidari dagokionez, partida hori 226.99 Bestelako gastuak partidari bildutako beste partida batzuen zati da. Eta hain zuzen ere 226.99 partidak biltzen ditu 2. Kapituluaren zenbateko nagusia (**2. kapituluaren guztizko zenbatekoaren % 82,22**) eta edukiak (berdintasun politikak sustatzeko jardura nagusiak). Azpimarratu behar da aurten eutsi egin zaiola 226.99.11 partidaren gastuari, 2023ko aurrekontuari egindako zuzenketa baten ondorioz. Hauexek dira 2024rako xehetasunak:

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.99	Bestelako gastuak	273.790,00
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak	102.000,00
226.99.02	Ikerketa lanak eta prestakuntza	3.000,00
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	111.265,00
226.99.05	Erantzunkidetasuna eta zaintzak lantzeko ekintzak	6.000,00
226.99.07	III. Berdintasun Plana: inplementatu eta sistematizatzea	15.000,00
226.99.08	Pobreziaren eta prekarietatearen feminizazioaren aurkako estrategia	26.500,00
226.99.11	Sexuak eta aniztasuna hezteko programa, eskola-umeei eta institutuei zuzendua	10.025,00

4. kapitulari dagokionez, 2. Kapituluari gertatzen den gauza berbera gertatzen da, 2023ko zenbatekoari eusten zaio, eta 481.03 Guraso bakarreko familien kontziliazio-kanguraje programaren aparteko dirulaguntzan egindako zuzenketa baten ondorioz finkatzen da igoera.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
481.01	Irabazi asmorik gabeko erakundeetarako dirulaguntzak	82.000,00
481.02	Dirulaguntza nominatiboa Emakumeen etxeko elkarteari	68.000,00
481.03	Guraso bakarreko familien kontziliazio-kanguraje programaren aparteko dirulaguntza	74.225,00

Azkenik, era berean 2023ko zuzenketa baten ondorioz, 50.000 €-ko zenbatekoari eusten zaio **6. Kapitulu**ko partida bakarrean (**622.01.01 Emakumeen Etxearen kokapen berria**), izan ere, 2023an ez zen partida horri esleitutako zenbatekoa gauzatu.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honi esleitutako zenbatekoaren guztizkoa gastu eraldatzailea da, programaren beraren jatorria eta xedea baita.

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik eratorritako dirulaguntzari dagokionez, **2023rako zenbateko berberari eutsi zaio, 165.460,76 €**, 2024ko uztailaren eta 2025eko uztailaren artean aplikatu beharreko neurriak aplikatzeko.

Aurreko ekitaldietan bezala, berretsi egiten da dirulaguntza horren guztizkoa Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloen gastu arruntean biltzeko gomendioa (horiek justifikatu behar dute dirulaguntza hori), zenbatekoa ebazten denean.

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea emakume askoren eta askotarikoen **topaketarako, prestakuntzarako, pentsamendurako eta ekintzarako** gune bat da, mugimendu feministaren eta Donostiako Udaleko Berdintasun arloaren arteko kudeaketa eredu misto edo partekatatu baten bidez antolatzen da.

Donostiako Udalak, **2024ko urteari begira, 274.305,66 €-ko ekarpen ekonomikoa** egingo dio Etxeari. 2023ko urtearekin alderatuta, zenbateko hori ia berdina da (+% 3,25), Emakumeen Etxeari esleitutako Berdintasun Teknikariaren soldatari dagokion eguneratzearen ondorio da.

Aurreko txostenetan azaldu bezala, **behar-beharrezkoa da Emakumeen Etxerako gune berri bat, iristen erraza, instalazio egokiak** izango dituen zerbitzuak eta jarduerak hartu ahal izateko. Eskaera hori berretsita dago Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko urriaren 20an **onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean**, bertan baitago jasota 4. proiektua-emaizta: **Emakumeen Etxe handiago, dibertsago eta koordinatuago bat**.

DONOSTIAKO UDALAK EMAKUMEEN ETXERA EGINDAKO EKARPENA	
1. Hitzarmena Emakumeen Etxea Elkartarekin	
Espazioaren dinamizazioa arratsaldeko ordutegian	68.000,00 €
2. Langileak	
Berdintasun teknikari bat lanaldi osoan	59.813,29 €
3. Ikastaroak, ahalduentze-taldeak eta zerbitzuak	
Emakumeentzako banakako arreta psikologikoa eta taldeko psikoterapia-zerbitzua	18.753,12 €
Aholkularitza juridikoko zerbitzua	10.888,91 €
Aniztasun funtzionala duten emakumeentzako ahalduentze-taldea	9.679,03 €
Atzerriko emakumeentzako ikasketak baliozkotzeko zerbitzua	7.259,27 €
Sexu-informazioko eta indarkeria matxisten prebentzioko zerbitzua gazteentzat eta neska gazteen ahalduentze-taldea	15.772,35 €
Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen ahalduentze-taldea	9.679,03 €
Etxeko langileen eta kontratatzaileen aholkularitza juridikoko zerbitzua	5.444,46 €
Gizarte-aholkularitzako zerbitzua	3.000,00 €
Literatura feministako taldeak: euskaraz eta gaztelaniaz	4.800,00 €
4. Eraikuntzaren mantenua	
Gastu arrunta (telefonoa, garbiketa, fotokopia, elektrizitatea, komunitateko gastuak, konponketa txikiak)	48.000,00 €
5. Komunikazioa	
Argazkiak eta bideoak	4.102,20 €
Hileroko programak: diseinua, maketazioa eta inprenta	3.000,00 €
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	4.114,00 €
Memoria eta programak inprimatzea	2.000,00 €
GUZTIRA	274.305,66 €

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun Arloari esleitutako **langile baliabideak indartzea** Emakumeen eta gizonen **berdintasunerako** eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko **Legearen azken aldaketetatik** (1/2023 Legegintzako Dekretua, testu bategina) eratorritako **betebeharrak eta eskumenak** behar bezala bete ahal izateko.
- ✓ Kontuan izanik 2024an egin behar dela IV. Berdintasun Planaren ebaluazioa, eta **Donostiarako V. Plana diseinatu behar dela, programaren aurrekontua behar bezala handitzea**, izan ere, esparru horretan finkatuko dira gai honetan jarduteko ardatz nagusiak datozen 4 urteetan.
- ✓ **Emakumeen Etxeari** dagokionez, lehentasunezkoa da 2024an eta parte hartze prozesuaren bidez, Emakumeen Etxe berriaren diseinua proiektua gauzatzea. Gainera, egungo Emakumeen Etxean **giza baliabideen eta baliabide materialen zuzkidura handitu** beharra dago gaur egungo eskariari erantzun egokia eman ahal izateko.
- ✓ Estatuko Itunari lotutako gastu arruntaren zenbatekoa, foru funtsaren bidez jasotzen dena, handituko dela aurreikustea. Helburu nagusia da indarkeria matxistak prebenitzeko eta arreata emateko gastua handitzea gaur egungo premien arabera eta aparteko akordioak edo dirulaguntzak gorabehera.

5.2.2. LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Lankidetzeta eta Garapenerako Hezkuntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **2.340.956 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,48** hartzen du. 2023an 2. 164. 537 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,47. Beraz, **+176. 419 €-ko** igoera izan du programa honek **(+% 8,15)**.

LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	229.728,00	306.147,00	76.419,00	%33,26
2. kapitulua	115.525,00	115.525,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	1.819.284,00	1.919.284,00	100.000,00	%5,50
TOTAL	2.164.537,00	2.340.956,00	176.419,00	%8,15

1. kapituluko igoera Zerbitzu Buruzagitzarako zuzkidura berreskuratzearen ondorioa da, izan ere, 2023an gastu hori "Hezkuntza: Zuzendaritza eta Administrazioa" Programara bideratu zen, bertara lekualdatu zen postu hori okupatzen zuen pertsona.

Aurreko urteetan bezala, **4. Kapitulan** gertatzen da igoera handieneko zenbatekoa: +100.000 € (+% 5,50). Honela banatzen da igoera hori:

- 70.000 € gehiago lehia askeko lankidetzarako Dirulaguntza lerrorako (481.01 partida).
- 34.000 € gehiago lehia askeko EpTS Dirulaguntzetarako (481.02 partida).

Positibotzat jotzen dugu lankidetzarako dirulaguntzen lerroan egindako igoera, oinarrietan genero ikuspegia txertatuta zenbateko osoa hartzen baita gastu eraldatzailetzat.

2. kapitulari dagokionez, 2023ko zuzkidura berberari eutsi zaio.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2023an bezala, **handitu egin da 481.01 partida**, kasu honetan guztira 1.063.626 € dira, hau da **2023an baino 70.000 € gehiago**.

Dirulaguntza horien oinarriek **berdintasunerako klausulak** aurreikusten dituzte, eta klausula horiek ziurtatzen dute GGKEk emakumeak programen erdigunean jartzea, emakumeak baitira pobreziatik eratorritako egoerak gehien nozitzen dituztenak.

Aipatzekoa da programa horrek aspaldi samarretik txertatzen dituela Giza Garapen Iraunkorrerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Plan Gidariaren baitan genero ekitatea printzipio gidari gisa, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna zeharkako ildo gisa.

COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO	2023	2024	Diferencia	
	Importe €	Importe €	Importe €	%
Capítulo 4	993.626,00	1.063.626,00	70.000,00	7,04%
TOTAL	993.626,00	1.063.626,00	70.000,00	7,04%

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Zuzeneko dirulaguntza** lerroetan **klausula generoak txertatzea**.

5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostia Lagunkoia programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024an, 2023an bezala, guztira 99,470 €-ko aurrekontu zuzkidura du, eta **udal aurrekontuetan % 0,02** hartzen du. Programaren guztizkoa ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak dira.

DONOSTIA LAGUNKOIA	2023	2024	Diferencia	
	Importe €	Importe €	Importe €	%
Capítulo 2	99.470,00	99.470,00	0,00	0,00%
TOTAL	99.470,00	99.470,00	0,00	0,00%

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako **berariazko partidarik identifikatu**.

Berretsi egiten dugu aurreko ekitaldietan programa honen izaerari buruz adierazitakoa. Izan ere, kontuan izanik **sustatzen dituen proiektuen eta jardueren helburuak (hiriaren lagunkotasuna hobetzea, adinekoen bizi kalitatea hobetzea eta, hedaduraz, Donostiako gizarte osoa hobetzea), Donostia Lagunkoia genero ikuspegitik programa garrantzitsua da**. Eragin esanguratsua du **adinekoen artean, emakumeak nagusi direlarik**, eta gainera zuzeneko lotura du zaintzekin eta adineko pertsonen parte hartzearekin.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren barruan, programa honek **ardura du 6. Proiektua—emaitzan, Indarkeria Matxistaren Prebentzio Integrala** (6.4 neurria. Adineko emakumeentzako programetan sentsibilizazio espazioak sortzea) **eta 8.ean, Kalitatezko zaintzak eta enpleguak** (8.2 neurria. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea eta 8.5 neurria, Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentu ezkutatua azalertzeko).

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Koordinazio dinamika** ahalbidetzea **Berdintasun arloarekin**, Donostia Lagunkoia proiektuan ekintza zuzeneko lerroak txertatzeko, ekintza/gastu eraldatzaile gisa definitzen direnak.
- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea** kontratazioan genero klausulak txertatzeko.

GIZARTE EKINTZA PROGRAMAK

Jarraian Gizarte Ekintza Zuzendaritzako programa guztiak aztertuko ditugu, eta guztien amaieran Zuzendaritzako gastu eraldatzailearen batuketa osoa jasotzen duen taula bat erantsi dugu.

5.2.4 GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte zerbitzuen zentroak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **4.998.949 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 1,03** hartzen du. 2023an 44. 873. 323 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 1,05. Beraz, **+125. 626 €-ko igoera** izan du programa honek (**+% 2,58**).

GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.392.122,00	4.441.152,00	49.030,00	%1,12
2. kapitulua	481.201,00	549.327,00	68.126,00	%14,16
4. kapitulua	0,00	8.470,00	8.470,00	
GUZTIRA	4.873.323,00	4.998.949,00	125.626,00	%2,58

Funtsezko programa da udal Gizarte Ekintza politiketarako. Programa honek gizarte zerbitzuen zentroetako langile gastua biltzen du, gizarte zerbitzu horietan baitira euskal gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko atak.

1. kapituluaren barruan, 3.006 € sartu dira programa honetako langileei zuzendutako prestakuntza bat egiteko. Prestakuntza horren edukia **indarkeria matxistaren biktimen seme-alabei genero ikuspegitik arreta hobea ematean datza.**

2. kapituluko igoerari dagokionez, herritarrentzako zerbitzu programen aldaketei erreparatuko diegu. Hala bada,

- +22.485 €-ko igoera 227.04.01 Laguntza programa partidan.
- +22.748 €-ko igoera 227.93 Intxaurrendoko otorduak partidan.

Gainerako aldaketak energia, gas, mantentze informatiko eta beste batzuekin lotuta daude.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Lehen ere azaldu dugun bezala, programa honetan **3.006 €** identifikatzen dira **gastu eraldatzaile gisa**. Programa **horretako langileei** prestakuntza emateko xedea du, helburua baita **indarkeria matxistaren biktimen seme-alabei arreta hobea ematea genero ikuspegitik**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasun Arloarekin koordinatzea indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eredia** EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko hirugarren akordioaren esparruan.

5.2.5. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2024ko aurrekontuan **839. 867 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,17** hartzen du. 2023an 807. 328 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,17. Beraz, +32. 539 €-ko igoera izan du programa honek **(+% 4,03)**.

GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	491.370,00	521.419,00	30.049,00	%6,12
2. kapitulua	32.992,00	35.482,00	2.490,00	%7,55
4. kapitulua	282.966,00	282.966,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	807.328,00	839.867,00	32.539,00	%4,03

Igoera hori funtsean **1. Kapitulu**an oinarritzen da, izan ere, 2024ko urteari begira, urteko bigarren seihilekotik aurrera, Gizarte Ekintzako ekipamenduetako arduradun postuari atxikitako laguntzaile bat kontratatzea aurreikusten da.

Bestalde, **etsi egin zaio irabazi asmorik gabeko elkarreentzako dirulaguntza lerroko (481-01) zenbateko berberari**, 274.800 €. Elkarre eta proiektu horiek **zuzeneko eragina dute zainketetan**, eta beraz, **garrantzi handia dute genero ikuspegitik**, eta ondorioz, positibotzat jotzen da aurrekontuari eustea eta, nola ez, igotzea. Eta bestetik, DYArri ematen zaion zuzeneko dirulaguntza, 8.166 €.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez dugu gastu eraldatzailerik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan eta dirulaguntzetan genero klausulak** txertatzeko.
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak** txertatzea.

5.2.6. APARTAMENTU TUTELATUAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Apartamentu tutelatuak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **2.256.313 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,47** hartzen du. 2023an 2. 111. 671 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,46. Beraz, **144. 642 €-ko igoera** izan du programa honek (**+% 6,85**).

APARTAMENTU TUTELATUAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	186.509,00	188.655,00	2.146,00	%1,15
2. kapitulua	1.889.082,00	2.031.578,00	142.496,00	%7,54
4. kapitulua	36.080,00	36.080,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	2.111.671,00	2.256.313,00	144.642,00	%6,85

Igoera hori, aurreko ekitaldian bezalaxe, batez ere **2. Kapitulu**an gertatzen da, zehazki kudeatutako apartamentu eta etxebizitza komunitarioen gastuekin lotutako partidetan, eta 226.24 Hitzarmenak partida berrian, 24.000 €-ko zenbatekoarekin.

Programa horrek biltzen ditu adineko pertsona autonomoei zuzendutako etxebizitza sozialak mantentzeko gastuak, eta beraz, eragin positiboa duen programa da zainketen esparruan.

Bestalde, 227.92.02 Apartamentu balioaniztunak partida desagerrarazi dela ikusten da, eta 2023an 39.000 €-ko zenbatekoa zuen.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez dugu gastu eraldatzailerik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Zerbitzuaren eskaera datuei, estaldura tasari eta onuradunak hautatzeko irizpideei buruzko azterketa sistematikoa egiteko gomendioari eusten zaio, sexuaren arabera bereizita, generoaren ikuspegitik balorazioa egiteko. Era berean, desiragarria da azterketarako aldagai berriak integratzea (interseksionalitatea).

5.2.7. GIZARTE ABEGI ETXEA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarte abegi etxea programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **1.810.430 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,37** hartzen du. 2023an 1.420.362€-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,31. Beraz, **390.068 €-ko igoera** izan du programa honek (**+% 27,46**).

GIZARTE ABEGI ETXEA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	959.133,00	1.139.700,00	180.567,00	%18,83
2. kapitulua	461.229,00	670.730,00	209.501,00	%45,42
GUZTIRA	1.420.362,00	1.810.430,00	390.068,00	%27,46

1. kapituluko igoera ez da plantilla handitzearen ondorio. Izan ere, aurreko ekitaldian bezalaxe, 2023ko ekitaldian ikusi da kapitulu honetarako aurreikuspenak ez zirela nahikoak langileak zerbitzuaren tipologiagatik ordeztzeko (bajak, oporrak eta beste baimen batzuk tarteko). Ondorioz, 2024ko ekitaldiari begira, **2023ko gastu errealean oinarritutako aurreikuspena** egin da.

2. kapituluak bildu egiten ditu etxegabeak hartzeko Mons pasealekuko abegi etxea (40 lagun hartzeko modukoa) mantentzeko gastuak. Erabiltzaileek gehienez ere 5 gau eman ditzakete etxe horretan. "Exijentzia maila apaleko" etxea da, eta erabiltzaile gehienak gizonetzkoak dira. Aldea gastu partiden zenbatekoetan izandako aldaketen ondorioa da, batez ere catering zerbitzuan (+61.816 €), Eraikinen kontserbazioan (+60.500 €), Energia elektrikoan (+13.000 €), Gas horniduran (+12.000 €), Elikagaietan (+12.800 €) eta izaera eta xede bertsuko beste gastu txikiago batzuetan izandako aldaketen ondorioa.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Pixka bat handitu da 2023an esleitutako zuzkidura Abegi Etxeko erabiltzaileei zuzendutako **prestakuntzak eta jarduerak egiteko genero ikuspegiarekin**, 2023an 10.000 € bereizi baitziren, eta 2024an 10.200 € esleitu baitira.

• GOMENDIOAK

- ✓ **Gastua esleitzea genero ikuspegiarekin egindako zentroko diagnostikotik eratorritako ekintzak implementatzeko.**

5.2.8. GIZARTERATZEA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarteratzea programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2024ko aurrekontuan **5.337.593 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 1,10** hartzen du. 2023an 4. 403. 978 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,95. Beraz, guztira **+933. 615 €-ko igoera** izan du programa honek (**+% 21,20**).

GIZARTERATZEA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	577.363,00	582.890,00	5.527,00	%0,96
2. kapitulua	2.544.495,00	2.741.814,00	197.319,00	%7,75
4. kapitulua	1.282.120,00	1.509.000,00	226.880,00	%17,70
6. kapitulua	0,00	503.889,00	503.889,00	
GUZTIRA	4.403.978,00	5.337.593,00	933.615,00	%21,20

Aldaketa esanguratsuenen artean, hasteko 4. Kapituluako igoera nabarmendu behar dugu. Igoera hori partida hauen igoeraren ondorioa da:

- 480.04 Elikatzeko laguntzak partida: ostalaritza zentroak, +71.880 €-ko igoerarekin.
- 480.02 Arrisku egoerarako laguntzak partida: +155.000 €-ko igoerarekin.

Eta 2024ko aurrekontuari begira, **6. Kapituluako** partida berriak **Salia Etxea** egokitzeko (409.122 €) eta ekipamenduz hornitzeko (94.767 €). Zentro horrek xede bikoitza du; alde batetik, etxerik ez duten pertsonentzako eguneko zentroa da (batez ere gizonezkoak bertaratzen dira), eta bestetik, **familiekin esku hartzeko** espazio bat gaituko da, eta horrek garrantzi handia du genero ikuspegitik.

2. kapituluan gertatzen den igoera kapitulua osatzen duten 34 partiden aldaketen emaitza da, baina oro har ez da aldaketa esanguratsurik nabarmentzen.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

6. kapituluan Salia Etxera bideratutako gastuaren % 50 sartzen da, eragina baitu familiei eman beharreko arretan eta garrantzia baitu generoari eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaiari dagokienez. Beraz, **251.945 €-ko gastu eraldatzailea** ematen da.

• GOMENDIOAK

- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan genero klausulak txertatzeko.**
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak** txertatzea.
- ✓ Prestakuntzan aurrera egitea **jarduketetan ikuspegi intersektionala** inplementatzeko.

5.2.9. ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Adin txikikoen prebentzioa eta familia programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **3.502.716 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,72** hartzen du. 2023an 3. 425. 142 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,74. Beraz, **77. 574 €-ko** igoera izan du programa honek (+% 2,26).

ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	653.448,00	721.976,00	68.528,00	%10,49
2. kapitulua	2.771.694,00	2.780.740,00	9.046,00	%0,33
GUZTIRA	3.425.142,00	3.502.716,00	77.574,00	%2,26

Funtsean **1. Kapitulu**an gertatzen da igoera, psikologo baten lanpostua jaso baita aurrekontuan; epai judicial bidez, Udalak kontratatu behar du lanpostu hori.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Arreta emateko Zerbitzua (IMEBAZ) programa honetan txertatzen da maila funtzionalean. IMEBAZek ostatu, harrera, diagnostiko, orientazio, laguntza psikologiko eta premiazko laguntza ekonomikoko baliabideak eskaintzen dizkie indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeei.

Beraz, langile horientzako **pertsonal gastu** osoa (215.562,77 €) gastu eraldatzailea da.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Tokiko Protokoloa eguneratzea** EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioaren esparruan.
- ✓ **Baliabideak eta arreta emateko espazioa moldatzea** aurreko puntuan adierazitako akordioarekin bat etorrita.

5.2.10. ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Adineko pertsonen sustapena programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **688.904 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,14** hartzen du. 2023an 671. 469 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,15. Beraz, **17. 435 €-ko** igoera txikia izan du programa honek (+% 2,60).

ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	294.936,00	298.051,00	3.115,00	%1,06
2. kapitulua	351.796,00	374.521,00	22.725,00	%6,46
4. kapitulua	24.737,00	16.332,00	-8.405,00	-%33,98
GUZTIRA	671.469,00	688.904,00	17.435,00	%2,60

Programa horren bidez laguntzen zaie beren jarduerak udal ekipamenduetan edo ekipamendu propioetan garatzen dituzten adinekoen elkarteei.

2. kapituluan gertatutako igoera funtsean energia gastuaren igoeraren ondorio da. **4. Kapitulu**an izandako jaitsiera 481.04 Hitzarmena Hurkoa Fundazioarekin partida desagerraraztearen emaitza da (-8.405 €).

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programaren baitan **ez dugu gastu eraldatzailerako partida espezifikorik identifikatu**.

Genero ikuspegitik, generoari garrantzi handiena ematen dioten partidak 227. 04. 02 eta 227. 04. 01 partidak dira, gizarte eta kultura kontratuak eta Aieteko auzoko Topalekua deritzon zentroa kudeatzekoak. Baita 227.25 partida ere, zehazki 55 urtetik gorakoentzako "+55" udal aisialdi eta denbora libreko programa.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Eutsi egiten diogu adineko emakumeen **benetako premietan** sakontzeko behar den jarduera ildoari, eta arreta berezia ematen diegu indarkeria matxistako kasuei.

5.2.11. ZAHARREN EGOITZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Zaharren egoitzak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **907.465 €-ko** zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,19** hartzen du. 2023an zuzkidura handiagoa izan zuen, 1.089.373 €-koa, aurrekontu osoaren % 0,24. Beraz, **-181.908 €-ko jaitsiera** izan du programa honek (**-% 16,70**).

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	1.089.373,00	907.465,00	-181.908,00	-%16,70
GUZTIRA	1.089.373,00	907.465,00	-181.908,00	-%16,70

2. kapituluan zentratzen da aurrekontu zuzkidura. Zenbateko hori Zorroaga Fundaziora bideratuko da bizitegi ekipamenduan adineko autonomoentzako ostatu eta arreta zerbitzua emateko. Jaitsiera horren arrazoia da Zorroaga Egoitzako erabiltzaileen koordainketaren arabera zehazten dela. Udalak bere gain hartutako gastua doitu egin da 2023ko benetako koordainketarekin uztartuta.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako partida jakin bat zehazten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Zerbitzuaren eskaerari eta estaldura tasari buruzko datuen bilketa eta analisisa** sistematizatzea gomendatzen dugu, **datuak sexuaren arabera berezita**, zerbitzuaren egokitasuna genero ikuspegitik balioetsi ahal izateko.

5.2.12. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Etxez etxeko laguntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2024ko aurrekontuan **-92.673 €-ko** jaitsiera izan du, **-% 0,92ko jaitsiera**. Ondorioz, udal aurrekontuen % 2,06 hartzen du, 2023an % 2,17 hartu zuelarik.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	116.523,00	117.544,00	1.021,00	%0,88
2. kapitulua	9.924.194,00	9.830.500,00	-93.694,00	-%0,94
GUZTIRA	10.040.717,00	9.948.044,00	-92.673,00	-%0,92

Programa 2. Kapituluako jaitsieraren ondorioz apaltzen da pixka bat. Halere, aurrekontu zuzkidurak gainditu egiten du 2023ko likidazioa, 8,3 milioiko gastuarekin itxi baita. Aurreko urtearekin alderatuta, 2024an zerbitzu orduak berreskuratzea espero da, Udalak prezio publikoari eusteaz gain.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa barruan ez da gastu eraldatzailerako partida jakin bat zehazten.

Funtsezko zerbitzua da genero ikuspegitik, eragin hirukoitza baitu: alde batetik, zaindutako pertsonen artean, kalitatezko zerbitzuarekin gozatu baitezakete; bigarrenik, emakume langileen artean, eta hirugarrenik, Etxez etxeko arreta zerbitzuak egin gabeko lan horiek beren gain hartu beharko lituzketen

pertsonen artean, kasu askotan etxeko eremuan eta ordainsaririk jaso gabe, eta, ongi dakigunez, gehien-gehienak emakumeak direlarik.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Zerbitzuaren eskaerari eta estaldura tasari buruzko datuak** sexuaren arabera bereizita aztertzea, zerbitzuaren egokitasuna genero ikuspegitik balioetsi ahal izateko.
- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan genero klausulak txertatzeko**. Zerbitzua ematera eta zerbitzuari atxikiriko baliabideetara bideratutako klausulak azpimarratuz.
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak** txertatzea.

5.2.13. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikako **Gizarte Larrialdietarako Laguntza** programa +% **14,71 handitu da 2023ko ekitaldiaren aldean**, 3.250.626 € izatetik 3.728.741 € izatera igaro baita. Halaber, aurrekontuetan duen pisuak gora egin du, 2023an % 0,70 hartzen baitzuen eta 2024an % 0,77.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	3.250.626,00	3.728.741,00	478.115,00	%14,71
GUZTIRA	3.250.626,00	3.728.741,00	478.115,00	%14,71

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako partida jakin bat zehazten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Datuak sexuaren arabera bereizteko eta genero ikuspegitik aztertzeo praktikan sakontzea**. Datuen azterketan, ahal dela, **ikuspegi interseksionala** txertatzea (adina, jatorria, etab.).

5.2.14. ZAHAR ETXEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Zahar etxea programa Gizarte Ekintzaren zuzendaritzapean dago. Halere, aurrekontuari dagokionez, **Lehentasunezko ondasun ekoizpena** eta **Kultura** arloko gastu politikan sailkatzen da. 2024ko ekitaldiari begira 2. 296. 725 €-ko aurrekontua du, udal aurrekontuetan % 0,47 hartzen du. 2023an 1. 350. 555 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontuetan % 0,29 hartzen zuen. Beraz, **nabarmen igo da** programa hau **(+946. 170 €, +% 70,06)**.

ZAHAR ETXEA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	627.355,00	623.525,00	-3.830,00	-%0,61
4. kapitulua	723.200,00	723.200,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	0,00	950.000,00	950.000,00	
GUZTIRA	1.350.555,00	2.296.725,00	946.170,00	%70,06

Programa honetan ematen den aldea batez ere **6. Kapituluan** sartutako bi partida berriren ondorioa da:

- Erdialdeko zahar etxea berritzeko: 600.000 €.
- Groseko Zahar etxea lekuz aldatzeko: 350.000 €.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2024. urterako ez da gastu eraldatzailerik zehazten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Lankidetzazko sustatzea **Berdintasun arloarekin**, adineko emakumeak ahalduzko eta indarkeria matxistaren aurka prebenitzeko eta jarduteko ekintza posibleak identifikatzeko.

GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMEN GASTU ERALDATZAILEAREN LABURPENA

Kontuan izanik aurrez **gizarte ekintzako programa** guztiei buruz azaldutako guztia ondorioztatu dezakegu 2024. urterako aurreikusitako gastu eraldatzailea +% 132,05 igo dela, 207.161,59 € izatetik 480.713,77 € izatera igaro baita. Igoera hori batez ere 6. Kapituluari gertatzen da, Salia Etxea berritzeko esleitutako zenbatekoan.

GIZARTE EKINTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	191.161,59	218.568,77	27.407,18	%14,34
2. kapitulua	16.000,00	10.200,00	-5.800,00	-%36,25
6. kapitulua	0,00	251.945,00	251.945,00	
GUZTIRA	207.161,59	480.713,77	273.552,18	%132,05

5.3. LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA

15 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Osasun sustapena.
- Osasun publikoa eta animalien ongizatea.
- Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua.
- Udal Musika eta Dantza Eskola (3 programa): Musika eta dantza eskola / Musika eta dantza eskola (Liburutegia) / Musika eta dantza eskola (Txistulariak).
- Heziketarako programak.
- Giza eskubideak.
- Kultur aniztasuna
- Donostia kultura.
- Euskara.
- Gazteria.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) / Kirol instalazioak (Donostia Kirola).

5.3.1. OSASUN SUSTAPENA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Osasuna politikaren baitan **Osasun sustapena** programa dugu. 2024. urterako aurrekontu zuzkidura 2023ko zuzkiduraren antzekoa da, zehazki 200.323 €-koa, eta beraz, +1.254 €-ko igoera izan da (+% 0,63). Udal aurrekontuetan %0,04 hartzen jarraitzen du.

OSASUN SUSTAPENA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	130.819,00	132.073,00	1.254,00	%0,96
2. kapitulua	68.250,00	68.250,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	199.069,00	200.323,00	1.254,00	%0,63

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honek **ez du gastu eraldatzaile jakin bat zehazten**.

Azpimarratu behar da 2023an lankidetzak aktiboa abiarazi dela Berdintasun arloarekin, eta jarduera ildo batzuk identifikatu direla, nahiz eta oraingoz ez diren aurrekontuetan islatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Aurrekontuan zuzkidura ekonomiko bat esleitzea**, Berdintasun arloarekin batera identifikatutako jarduera ildoak burura eraman ahal izateko.
- ✓ Osasun Planean ezarritako neurrien **genero eragina Planaren arabera emaitza adierazleen bidez ebaluatzea** (Planak adierazten duenez, adierazleak sexuaren, gizarte mailaren eta auzoaren arabera bereizita).

5.3.2. OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Osasuna gastu politikaren barnean dugu **Osasun publikoa eta animalien ongizatea** programa, eta 2024. urterako 1.324.566 €-ko aurrekontu zuzkidura du, hau da, 2023an baino +329.500 € gehiago (+% 33,11). Beraz, % 0,22tik %0,27ra handitu da udal aurrekontuetan duen pisua.

OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	599.702,00	604.358,00	4.656,00	%0,78
2. kapitulua	395.386,00	720.230,00	324.844,00	%82,16
GUZTIRA	995.088,00	1.324.588,00	329.500,00	%33,11

Igoera hori batez ere 227.20 Kaleko animaliak harrapatzea eta kontrolatzea partidaren igoeraren ondorioa da, partida hori +303.680 €-an handitu baita.

Udalak Animalien Ongizaterako Lege berriaren aurrean dituen erantzukizun berrien ondorioa da igoera hori. Lege berriaren arabera, animaliak babesteko enpresak (kanpoko kontrata) harrapatzen dituen animaliak Udalak mantendu behar ditu adoptatu edo hiltzen diren arte. Horrexek eragin du zenbateko handiagoa lizitazio kontratuan.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honek **ez du gastu eraldatzaile jakin bat zehazten**. Halere, azken urtean Berdintasun arloarekin batera genero zeharkakotasun lan bat egin da adikzioei aurrea hartzeko programaren baitan.

Esku hartze horren izaera **garrantzitsua da genero ikuspegitik**, esku hartze horiek zuzenean bideratzen baitira Donostiako gazteekin, eta haien bidez desberdintasun, jazarpen eta indarkeria egoerak landu baitaitezke eta/edo beste udal zerbitzu batzuetara bidera baitaitezke.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Aurrekontua esleitzea** 2023an arlo honen eta Berdintasun arloaren artean identifikatutako **adikzioei aurrea hartzeko proiektua** burura eramateko, gure ustez lehentasunezko eta ezinbesteko jarduera baita.

5.3.3. HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikaren barruan dugu **Hezkuntzako ikastetxeen Funtzionamendua** programa, 2024rako **8.809.006 €-ko** aurrekontu zuzkidura duena, 2023an baino **+651.150 €** gehiago (+% 7,98). Aurrekontuetan duen pisuak ere gora egin du % 1,77tik % 1,82ra.

HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.964.046,00	1.982.575,00	18.529,00	%0,94
2. kapitulua	5.793.810,00	6.126.431,00	332.621,00	%5,74
6. kapitulua	400.000,00	700.000,00	300.000,00	%75,00
GUZTIRA	8.157.856,00	8.809.006,00	651.150,00	%7,98

Programa honek sare publikoko **lehen eta haur hezkuntzako ikastetxeen mantentze lanak** ditu esleituta. 2024an **2. kapituluko** igoera batez ere Garbiketa lanak (+172. 101 €) eta Eraikinen kontserbazioa (+200.000 €) partiden igoeran oinarritzen da.

Bestalde, 6. Kapitulari dagokionez, genero ikuspegitik eragin kaltegarria du 622.01.02 Patio inklusiboak partida desagerrarazi izanak. Kapitulu honetako 2024. urterako zenbatekoa jarraian zehazten da, eta 622.01.03 partida berria dela nabarmendu behar da:

HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA	700.000,00
622.01.03 Loialako Erriberetako Haurreskola	400.000,00
622.01.01 60-40 EJ Eskoletako eraikinak	300.000,00

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2024. urterako ez da gastu eraldatzailerik zehazten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Patio inklusiboen esku hartze ildo berreskuratzea.** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planetik eratorritako 5. Proiektuan zehaztutakoaren arabera. 5.2 neurria: *Hezkidetzarako patioak. Genero ikuspegia txertatzea ikastetxeetako patioetan egiten diren hobekuntza eta mantentze lanetan (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratzea, mugimendu edo kirol praktika askotarikoak egitekoak).*

5.3.4. UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (3 PROGRAMA): MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK).

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Musika eta Dantza Eskola **Udal Erakunde Autonomoa** da, eta arautu gabeko irakaskuntzaren helburuetan parte hartzen du, kulturaren sorkuntza, kritika eta transmisioari begira, musika eta dantza diziplinen berriazko eta lehentasunezko eremutik.

Hiru aurrekontu programek osatzen dute programa honen aurrekontua: Musika eta dantza eskolak, 5.746.790 €-ko zuzkidurarekin (2023koarekin alderatuta, % 7,05eko igoera), Musika eta dantza eskolak (liburutegia), 178.481 €-ko zuzkidurarekin (2023an baino % 3,96 gehiago) eta Musika eta dantza eskolak (Txistulariak), 711.322 €-ko zuzkidurarekin, 2023an baino % 2,94 gehiago.

Beraz, batera hartuta, Musika Eskolak **6.636.593 €-ko aurrekontua du 2024. urterako**, hau da, 2023an (6.231.100 €) baino % **6,51 gehiago**. **Aurrekontu osoaren % 1,37** hartzen du, eta 2023an % 1,35 hartzen zuen.

Udalak, guztira, 3.878.327 € jartzen ditu gastu arruntean (2023an 3.705.000 €) eta 101.000 € kapital gastuan (ekarpen berria 2023ko ekitaldiarekiko).

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.617.785,00	5.939.823,00	322.038,00	%5,73
2. kapitulua	611.565,00	594.770,00	-16.795,00	-%2,75
3. kapitulua	1.750,00	1.000,00	-750,00	-%42,86
6. kapitulua	0,00	101.000,00	101.000,00	
GUZTIRA	6.231.100,00	6.636.593,00	405.493,00	%6,51

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailea handitu egin da 2023ko ekitaldiarekiko, 5.100 €-ko zenbatekoa izatetik 6.500 €-ko zenbatekoa izatera igaro da, eta beraz, +% 27,45 igo da. Gastuaren xedea antzekoa da, Eskola barneko

Berdintasun Batzordeak sustatutako jardueretan oinarritzen da. Partida guztiak handitu dira, jarraian zehazten denez:

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Protokolo eta ordezkariak (02.226.02)	600,00	700,00	100,00	%16,67
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda (02.226.03)	600,00	700,00	100,00	%16,67
Bilera eta hitzaldiak (02.226.05)	1.500,00	1.800,00	300,00	%20,00
Kanpoko bestelako enpresa lanak (01.227.99.99)	1.800,00	2.200,00	400,00	%22,22
Funts bibliografikoak (01.628)	600,00	1.100,00	500,00	%83,33
GUZTIRA	5.100,00	6.500,00	1.400,00	%27,45

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Barneko Berdintasun Taldeak **jarduerak sustatzen jarraitzea**, eta ahal den neurrian, gastu eraldatzaile bideratutako baliabideak handitzea.
- ✓ Egindako jardueren eragina ebaluatuko duten **genero adierazleak finkatzeko urratsak egiten jarraitzea**.

5.3.5. HEZIKETARAKO PROGRAMAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikako **Heziketarako Programak** programa **handitu** egin da 2023an, zehazki +% 20,35, eta 271.174 € izatetik 326.360 € izatera igaro da. Aurrekontuetan % 0,06 hartzen zuen 2023an, eta % 0,07 hartzen du 2024an.

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	60.705,00	115.891,00	55.186,00	%90,91
2. kapitulua	80.140,00	80.140,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	130.329,00	130.329,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	271.174,00	326.360,00	55.186,00	%20,35

Igoera hori soilik **1. Kapitulu**ko **igoeraren** ondorioa da, organigraman egindako aldaketa baten emaitza da. Zuzendaritzako kideen guztizkoan ez da langile gehiago bildu, baina lanpostu batzuk berriz esleitu dira, eta 2024an 2 lagun daude lanpostu teknikoetan esleituta, 2023an bakarria izan zenean.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Mantentzen eta finkatzen da 2023ko gastu eraldatzailearen aurrekontu zuzkidura. Ondorioz, 2024ko aurrekontuan **70.073 €-koa** da programa honetako gastu eraldatzailearen **zenbatekoa**.

2023ko antzeko xedea du:

- 226.99.02 "Genero indarkeria prebenitzeko programa" partida, 27.900 €-ko zenbatekoarekin.
- 226.99.01 "Berdintasun Programa" partida, 24.840 €-ko zenbatekoarekin.
- 229.99.06 "LGTBIQ+ diskriminazioaren eta bullying-aren aurkako kanpaina" partida, 10.500 €-ko zuzkidurarekin.
- 481.03 "Hip Hip Hurri Programa" partida, 6.833 €-ko zuzkidurarekin.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan genero klausulak txertatzeko.**
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak** txertatzea.
- ✓ Prestakuntzan aurrera egitea **jarduketetan ikuspegi interseksionala** inplementatzeko.

5.3.6. GIZA ESKUBIDEAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikako **Giza eskubideak** programak **2023ko zenbateko bertsuari eutsi dio (+% 0,26ko igoera)**. Era berean, pisu berdina hartzen du udal aurrekontuetan, % 0,13.

GIZA ESKUBIDEAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	241.705,00	243.272,00	1.567,00	%0,65
2. kapitulua	274.898,00	264.898,00	-10.000,00	-%3,64
4. kapitulua	88.980,00	98.980,00	10.000,00	%11,24
GUZTIRA	605.583,00	607.150,00	1.567,00	%0,26

Inguruabar hauek izan dira **2. Kapitulu**ko jaitsieraren (**-% 3,64**) erantzuleak:

- 226.99.07 **Beste erakundeekiko proiektuak** partida desagerraraztea; 2023an 46.130 €-ko zenbatekoa izan zuen (Eskura, Giza Eskubideen aldeko Pedagogoa Baliabideen Aieteko Zentroaren proiektu pilotua).
- 226.99.02 Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak partida 36.130 €-an handitzea.

Honenbestez, hauxe da 2024rako jardueren partida sorta:

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.99	Bestelako gastuak	206.530,00
226.99.01	Oroimen historikoa	57.250,00
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	112.530,00
226.99.06	Oraitzepenezko ekintzak eta biktimen aitortza	18.000,00
226.99.08	Gerra Zibileko kokalekuak seinalezatzea	18.750,00

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzaileari dagokionez, eutsi eta finkatu egin da 2023an izandako igoera. Guztira **29.000 € izango dira, kopuru osoa 226.99.02 partidari esleitua**. Honatx xehetasunak:

- 15.000 € ekainaren 28ko LGTBIQ+. Kanpainarako.
- 2.000 € LGTBIfobiari buruzko urteko txostenak egiteko.
- 12.000 € LGTBIQ+ ekintza planerako.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Aurrekontu zuzkidura dimentsionatzea** Donostiako hiran eta aniztasun sexualaren esparruan zeharkako jarduera plan bat burura eramateko.

5.3.7. KULTUR ANIZTASUNA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikan sartzen den **Kultur Aniztasuna** programak ez du alde aipagarririk 2023ko programarekin alderatuta, 454 €-an baizik ez baita handitu. Eutsi egiten dio aurrekontuetan izan duen pisuari, % 0,09 hartzen baitu.

KULTUR ANIZTASUNA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	176.071,00	176.525,00	454,00	%0,26
2. kapitulua	162.074,00	162.074,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	87.690,00	87.690,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	425.835,00	426.289,00	454,00	%0,11

2. kapituluaren barruan eutsi egiten zaio **Sentsibilizazio kanpainak** partidari (**226.99.01**). Aurrekontu horrekin egiten dira arloarekin zerikusia duten nazioarteko egunak, hala nola:

- Martxoak 21: Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako eguna.
- Apirilak 8: Ijito Herriaren Nazioarteko eguna.
- Maiatzak 21: Kultur Aniztasunaren eguna.

- Ekainak 20: Errefuxiatuen Munduko eguna.
- Azaroak 20. Haurren nazioarteko eguna (kulturarteko ikuspegitik).
- Abenduak 19: Migratzaileen eguna.

Kanpaina horietan eguna gogoratzeko jarduera espezifikokoak egiten dira, eta herritarrei zuzendutako prestakuntza eta saio batzuk egiten dira kulturarteko bizikidetzaz sustatzeko eta zurrumurruei aurre egiteko. Kontuan harturik jardueren izaera, **genero ikuspegia txertatzea gomendatzen dugu**.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Eutsi egiten zaio **8.944 €-ko** zenbatekoari gastu eraldatzaile gisa. Zenbateko horren xedea da:

- **Emakumeen Etxeko** emakumeak ahalduzko eta elkartzeko **Emakumeen kulturarteko gunea** dinamizatzea –jatorri askotariko emakumeen gunea da, astero-astero bilerak egiten dituen gure hirian migrazioaren bizipena partekatze–. 6.336 €-ko zenbatekoarekin.
- **Emakume migratzaileen ahalduzkoekin zerikusia duten beste jarduera batzuk**, 2.608 €-ko zenbatekoarekin.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasunerako Legearen** azken aldaketak **interseksionalitatea identifikatzen du printzipio gidari** gisa politika publiko guztietan; horrexegatik uste dugu beharrezkoa dela **programa honetan aurrekontu baliabideak indartzea**. Izan ere, indartu egiten dute eta erantzuten diote Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean sartutako Begirada Interseksionala 2. Proiektu-emaitzari.

5.3.8. DONOSTIA KULTURA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostiako **Udalaren mendeko Enpresa Erakunde Publikoa** da Donostia Kultura. Udalaren kultura politika bideratzen du, eta herritarrei kulturarekin eta herri jaiekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie, zerbitzu horiek nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpentzat hartzen baitira.

2023ko ekitaldiaren aldean, 2024rako **+% 4,17an handitu da aurrekontu zuzkidura**, 31.799.048 € izatetik **33.125.807 €** izatera igaro da.

Udalak egiten duen ekarpena da programaren **diru sarrera iturri nagusia**, egungo aurrekontuan 26.050.000 € hartzen baititu **gastu arruntean** eta 930.000 € **kapital gastuan** (2023an baino gehiago bi kontzeptuetan).

DONOSTIA KULTURA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	14.390.211,00	15.084.611,00	694.400,00	%4,83
2. kapitulua	16.064.043,00	16.374.743,00	310.700,00	%1,93
4. kapitulua	723.294,00	734.953,00	11.659,00	%1,61
6. kapitulua	620.000,00	930.000,00	310.000,00	%50,00
8. kapitulua	1.500,00	1.500,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	31.799.048,00	33.125.807,00	1.326.759,00	%4,17

Aldaketa esanguratsuen 6. Kapituluaren geratzen da, 310.000 €-an handitzen baita. Inbertsioei dagokienez, informazio orokor zehaztugabea baizik ez dugu eskuratu:

- Hobekuntzak eraikinetan (500.000 €).
- San Telmo webgunea (100.000€).
- San Telmo Bilduma (175.000 €).
- Okendo Kultur Etxea: fatxadak eta teilatuak, 75.000 €.
- Erdialdeko liburutegia (Alderdi Eder) zaharberritzeko, 150.000 €.
- Loiola kultur guneko irisgarritasuna (igogailuak, komunak eta beste instalatzea), 30.000 €.

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetako **gastu eraldatzailea** -% 31,35ean apaldu da 2023koarekin alderatuta.

Ondoko taulan daude jasota ekitaldi honetan aurrekontu zuzkidurarik ez duten kontzeptuak (batez ere erakusketak eta prestakuntza saioak).

Bestalde, **apaldu da Berdintasun Planera** bideratutako **zenbatekoa** (-10.000 €). 2024ko ekitaldiari begira, kontzeptu honetan sartu dira Berdintasun Planaren garapena eta gai horretan eskainiko diren prestakuntza saioak, guztira 17.000 €.

Aitzitik, **+18.629 €-an handitu da Gure Ahotsak** programarako zuzkidura, eta eutsi egiten zaio emakumeen asterako (Intxaurrondo eta Altza) 7.000 €-ko zuzkidurari.

DONOSTIA KULTURA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Berdintasun plana eta formakuntzak (2024)	27.000,00	17.000,00	-10.000,00	-%37,04
Emakumearen asteak (Intxaurren eta Altza)	7.000,00	7.000,00	0,00	%0,00
Gure ahotsak kontzertua	20.000,00	38.629,00	18.629,00	%93,15
Hitzaldiak San Telmo museoan: Erronkak jardueraren baitan berdintasunaren inguruan bost hitzaldi	7.500,00	0,00	-7.500,00	-%100,00
San Telmo museoko programazioa: Argazki erakusketa (Lola Garrido "Woman are beautiful")	35.000,00	0,00	-35.000,00	-%100,00
Jarduera San Telmo Museoan: "Emakumea eta gorputza"	1.500,00	0,00	-1.500,00	-%100,00
San Telmo Museoan: Euskal Artea erakusketaren narratiba genero-berdintasunaren terminoetan		10.000,00	10.000,00	
Prestakuntza: Sexu jazarpenarekin autodefentsa feminista emakumeentzat	800,00	0,00	-800,00	-%100,00
Prestakuntza: "Berdintasuna, erosteko eta kontratatzeke irizpide gisa txertatu"	2.000,00	0,00	-2.000,00	-%100,00
LinkedIN DK Berdintasuna sortu (147 orduko dedikazioa)	5.000,00	0,00	-5.000,00	-%100,00
GUZTIRA	105.800,00	72.629,00	-33.171,00	-%31,35

• **GOMENDIOAK**

- ✓ Kultur programan **genero zeharkakotasuna txertatzeko** urratsak egitea.
- ✓ Ahal den neurrian, **gastu eraldatzailer**a bideratutako baliabideak eta horiek identifikatzeko modua **indartzea eta/edo handitzea**.

5.3.9. EUSKARA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Kultura gastu politikan sartzen den **Euskara** programa pixka bat apaldu da (-% 1,08) 2023ko zuzkiduraren aldean, eta 3.072.872 € izatetik 3.039.641 € izatera igaro da. Aurrekontuetan pisu txikiagoa du, lehen % 0,67 hartzen baitzuen eta orain % 0,63.

EUSKARA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.217.984,00	1.184.753,00	-33.231,00	-%2,73
2. kapitulua	1.106.835,00	1.047.685,00	-59.150,00	-%5,34
4. kapitulua	748.053,00	807.203,00	59.150,00	%7,91
GUZTIRA	3.072.872,00	3.039.641,00	-33.231,00	-%1,08

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2023ko 5.600 €-ko zenbatekoa guztira 11.000 €-ko zenbatekora igo da 2024ko ekitaldian. Hona hemen gastu eraldatzailearen xehetasunak:

- **226.06.05 partida:** Genero berdintasunari buruzko moduluak ikastetxeetan egiten den Antzerkhizkuntza proiektuan, 7.000 €.
- **226.06.11 partida:** Euskararen egoerari eta ikusgarritasunari buruzko edukiak izango dituen tailer bat prestatzea, integrazteko tresna gisa, etxeko lanetan ari diren emakume atzerritarrekin lantzeko Emakumeen Etxean eratuko den espazioan, 2.500 €.
- **226.06.13 partida:** Genero, kulturarteko eta hizkuntza irizpideei buruzko lan saioak udal arloetako teknikariek, 1.500 €.

Horrek **+% 96,43ko igoera** dakar.

• GOMENDIOAK

- ✓ Gaur egungo esku hartzeko ildoak (**emakume atzerritarrak ahalduntzea**) eta udal arloen artean **zeharkako neurriak** (genero, kulturarteko eta hizkuntza irizpideak) **txertatzeko** ildoak eustea. Eta ikastetxeetan ikasturte honetarako aurreikusitako jarduerak indartzea.
- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan genero klausulak** txertatzeko.
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak** txertatzea.
- ✓ Prestakuntzan aurrera egitea **jarduketetan ikuspegi intersektionala** inplementatzeko.

5.3.11. GAZTERIA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Kultura gastu politikan sartzen den **Gazteria** programa **+% 5,47 handitu da 2023ko zuzkiduraren aldean**, eta 2.458.610 € izatetik 2.593.071 € izatera igaro da **(+134.461 €)**. Aurrekontuetan pisu txikiagoa du, lehen % 0,70 hartzen baitzuen eta orain % 0,67.

GAZTERIA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	493.130,00	552.591,00	59.461,00	%12,06
2. kapitulua	1.819.623,00	1.827.623,00	8.000,00	%0,44
4. kapitulua	145.857,00	137.857,00	-8.000,00	-%5,48
6. kapitulua	0,00	75.000,00	75.000,00	
GUZTIRA	2.458.610,00	2.593.071,00	134.461,00	%5,47

1. kapituluko igoeraren arrazoia da 2024rako beste teknikari lanpostu bat jaso dela aurrekontuan, aurreikuspenen arabera 2024an zehar gauzatuko den egonkortze prozesuaren ondorioz.

2. kapituluaren barnean, **jarduera soziokulturala partida (226.06) eta Hautxokoen eta Gaztelekuen** sarera bideratukoa **(227.04)** dira programa honen hartzaile diren kolektiboetan (neskatxak, haur nerabeak eta gazteak) zuzeneko eragina dutenak, eta garrantzitsuak dira genero ikuspegitik. Hautxokoetara eta Gazteleketara bideratutako zuzkiduraren kasuan, kapitulu honetan zenbateko handiena baitu, **kopuru bertsuari eutsi zaio (+5.484 €, +% 0,40)**.

Nabarmentzekoa da Berdintasun Programak partidari izandako 5.000 €-ko igoera. Bestalde, 2024ko ekitaldiari begira, **desagerrarazi egin da** Ludopatiaren aurkako programa partida (2023an 10.000 €).

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.06	Jarduera soziokulturalak	198.212,00
226.06.03	Haur eta gazte aisialdia (denbora libre eta Gabonak)	38.000,00
226.06.04	Gazte plana	21.850,00
226.06.05	Kultura hedatzea	5.200,00
226.06.06	Kultura sustatzea	34.292,00
226.06.07	Berdintasun programak	40.000,00
226.06.09	Martx Up! Programa	38.870,00
226.06.10	0-5 adin tarterako Programa	20.000,00
227.04	Zerbitzu enpresak	1.364.259,00

4. kapituluan bi partida desagertu dira: Ikus-entzunezko hitzarmen bidezko ekarpena Victoria Eugenia S.A. enpresarekin (2.000 €) eta aurretiazko komunikazioetarako laguntzak gazteentzako lokaletan (6.000 €).

6. kapituluari dagokionez, 2024rako partida bat sortu da **“Parte Zaharreko Hautxokorako”**, 75.000 €, auzo horretan orain arte izan ez den zerbitzu horretarako espazio bat gaitzeko. Horrexegatik diogu gastu eraldatzailea dela, berria delako eta zaintzekin lotuta dagoelako.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

GAZTERIA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	35.000,00	40.000,00	5.000,00	%14,29
6. kapitulua	0,00	75.000,00	75.000,00	
GUZTIRA	35.000,00	115.000,00	80.000,00	%228,57

Handitu egiten da 226.07.07 Berdintasun programak partidaren **aurrekontu zuzkidura**, guztira **40.000 €** ditu, eta beraz, +% 14,29ko igoera du 2023ko zuzkiduraren aldean. Zenbateko horren bidez antolatzen dira **gazte eta nerabeen artean indarkeria matxista prebenitzeari buruzko jardunaldiak** eta Beldur Barik kanpaina, antzeko helburua duten beste jarduera batzuek gain.

Haurtxokoen eta Gaztelekuen Sareak, jarduerak dinamizatzen dituen kanpoko kontratazioaren bidez, neskatxekin, haurrekin eta gazteekin lantzen ditu udal berdintasunerako Planarekin lerrokatzen diren **hezkidetza jarduerak**. Horrexegatik, ekipamendu eta jarduera horiek estrategikotzat jotzen dira genero ikuspegitik.

Bestalde gastu eraldatzailea da Parte Zaharrean orain arte izan ez den **Haurtxoko zerbitzua** emateko espazio bat prestatzea (**75.000 €**).

Beraz, guztira **80.000 €-koa** da programa honetako **gastu eraldatzailea**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Arloaren baitan **Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoari erantzuteko neurriak inplementatzea.**
- ✓ Gazteriak sustatutako programetan **interseksionalitatearen integrazioan urratsak egiteko gomendioari eusten diogu.**

5.3.12. DONOSTIA KIROLA, ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Udalaren Tokiko Erakunde Autonomoa da Udal Kirol Patronatua, eta udalerrian kirola garatzea du helburu.

2023koaren aldean, 2024an **+% 19,64an igo da programaren aurrekontu zuzkidura**, 19.619.086 € izatetik **23.472.877 €** izatera igaro da. **Hiru aurrekontu programak osatzen dute** aurrekontua: Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa, 6. 154. 220 €-ko zuzkidurarekin (% 59,77ko igoera 2023koaren aldean), Donostia Kirola-Promozioa eta sustapena, 3. 610. 128 €-ko zuzkidurarekin (2023an baino % 9.04 gehiago) eta Kirol instalazioak, 12. 708. 529 €-ko aurrekontu zuzkidurarekin, 2023an baino % 2,03 gehiago.

Udalak guztira 10.610.600 €-ko **ekarpena egiten du gastu arruntean** eta 1.250.000 €-ko **ekarpena kapital gastuan**.

DONOSTIA KIROLA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.456.000,00	5.951.153,00	495.153,00	%9,08
2. kapitulua	12.832.536,00	14.261.224,00	1.428.688,00	%11,13
3. kapitulua	25.000,00	25.000,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	1.305.550,00	1.385.500,00	79.950,00	%6,12
6. kapitulua	0,00	1.850.000,00	1.850.000,00	
GUZTIRA	19.619.086,00	23.472.877,00	3.853.791,00	%19,64

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Ezin izan dugu 2023an 2. Kapitulan adierazitako gastuari eutsi zaiolako ebidentziarik eskuratu (Diagnostikoa eta Berdintasun Plana -15.000 €-, Goazen neskak kanpaina 4.235 €- eta Emakumeen Kirolaren ekitaldiko sariak -2.500 €-).

Aitzitik, egiaztatzen da goi mailako emakumezko taldeentzako dirulaguntza izendunei eutsi zaiela, jarraian zehazten denez:

Partida	Deskribapena	Zenbatekoa€
471.03	Goi-mailako emakumezkoen taldea: Real Sociedad de Fútbol S.A.D. (Belar hockeya 2023/24)	10.000,00 €
481.08	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: Bera Bera R.T. (Eskubaloia 2023/24)	55.000,00 €
481.09	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: Ibaeta K.E. (Saskibaloia 2023/24)	55.000,00 €
481.10	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Urdin (Izotz Hockeya 2022/23)	6.000,00 €
481.12	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Berri (Curling 2023/24)	2.000,00 €
481.13	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldeak: Atletico SS (Atletismoa 2023/24)	4.000,00 €
	Guztira	132.000,00 €

2023koarekin alderatuta azpimarratu behar da **arraun elkarteei** emandako dirulaguntzekin lotutako informazioa ez dagoela bereizita (Kaiarriba AE – Arrauna 2024: 110.000 € eta Donostia Arraun Laguna Elkartea – Arrauna 2024: 25.000 €), eta ez dakigula zer zenbateko bereizten den emakumezko taldearentzat. 2023an, 15.000 €-koa izan zen zenbateko hori bi kasuetan.

Bestalde, 481.07 partidaren baitan, **80.000 €** bereizi dira **Erreginaren Koparako** (Bera Bera R.T.). Zenbateko hori kontuan harturik, goi mailako emakumezkoen taldeetara bideratutako 132.000 €-rekin batean, **212.000 €-koa da 2024an gastu eraldatzailearen guztizkoa**, eta beraz, **4. Kapituluko guztizkoaren % 15,30** hartzen du.

Era berean, ekintza positiboko neurri gisa, **kluben egituretara bideratutako dirulaguntzetan** (laguntzak lehiaketan) **puntuazio bikoitzarekin balioesten da emakume federatuen kopurua**.

Beraz, guztira, **212.000 €-ko gastu eraldatzaile globala** aurreikusten da 2024an, **hau da, % 26,39ko igoera izango da**.

DONOSTIA KIROLA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	21.735,00	0,00	-21.735,00	-%100,00
4. kapitulua	146.000,00	212.000,00	66.000,00	
GUZTIRA	167.735,00	212.000,00	44.265,00	%26,39

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Dirulaguntzekin eta kirol jardurekin eta/edo diziplinekin lotutako **genero adierazleak sistematikoki identifikatzea eta neurtzea**.
- ✓ “**Kirol jardunean haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko protokoloaren**” inplementazioa bultzatzea Donostiako kirol klub guztietan.
- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan eta dirulaguntzetan genero klausulak txertatzeko**.
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak** txertatzea.
- ✓ Prestakuntzan aurrera egitea **jarduketetan ikuspegi interseksionala** inplementatzeko.

5.4. JARDUKETA EKONOMIKOAK

5 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Donostia Turismo.
- Donostia Sustapena, SA
- Dbus.
- Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa.
- Proiektu eta obrak.

5.4.1. DONOSTIA TURISMO

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostia-San Sebastián Turismoa, SA Donostiako Udalaren merkataritza sozietatea da, **Sozietate Anonimoaren izaera du, eta udal titulartasunekoa da erabat.**

2023ko ekitaldiaren aldean, 2024rako **-% 1,05ean apaldu da aurrekontu zuzkidura**, 4.446.023 € izatetik 4.399.546 € izatera igaro da.

Udalak guztira 3.216.846 €-ko ekarpena egiten du **gastu arruntean** eta 340.200 €-ko ekarpena **kapital gastuan**.

DONOSTIA TURISMO	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.175.533,00	2.236.334,00	60.801,00	%2,79
2. kapitulua	1.788.490,00	1.823.012,00	34.522,00	%1,93
6. kapitulua	482.000,00	340.200,00	-141.800,00	-%29,42
GUZTIRA	4.446.023,00	4.399.546,00	-46.477,00	-%1,05

6. kapituluko zuzkidura honako hauek bideratuta dago: bulego berria egokitzea/ekipatzea (300.000 €), aplikazio informatikoak (6.000), kontabilitate-tresna (9.200), baliabide berriak eta turismo-enpresak seinaleztatzea (15.000), presentzia kontrolatzeko kudeatzailea informazio- eta harrera-arloa (10.000).

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2024ko ekitaldiari begira, **berariazko aurrekontua duen gastu eraldatzailatzat** jotzen da **Lilatonen babesletzarako 500 € bereiztea**.

Bestalde, kanpainen bidez **emakumeak ageriko egiteko ekintza osagarri batzuk aurreikusten dira**, baina kanpaina horiek **1. Kapitulukoko barne baliabideen bidez** eramaten dira burura, eta beraz, ez dira horretarako berariazko programen bidezko zuzkidurak bereizten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Beharrezkoak diren **aurrekontu baliabideak jartzea Donostia Turismoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planean** identifikatutako neurriak burura eramateko.

5.4.2. DONOSTIA SUSTAPENA, SA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostia Sustapena SA **udal sozietate publikoa** da, eta hiriko **ekonomia eta gizartea sustatzen eta garatzen du**, berrikuntzaren, ezagutzaren sorkuntzaren eta eraldaketaren, sareko lanaren eta proiektuen sustapen eta kudeaketaren bidez, hori guztia iraunkortasun irizpideei jarraiki.

2023koaren aldean, 2024an **-% 32,80an apaldu da programaren aurrekontu zuzkidura**, eta 2023an 22.745.876 € izatetik **15.285.464 €** izatera igaro da.

Udalak guztira 7.475.000 €-ko **ekarpena** egiten du gastu arruntean eta beste 380.000 € kapital gastuan.

DONOSTIA SUSTAPENA, S.A.	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.421.546,00	3.509.325,00	87.779,00	%2,57
2. kapitulua	7.900.582,00	7.515.261,00	-385.321,00	-%4,88
3. kapitulua	0,00	345.149,00	345.149,00	
4. kapitulua	3.794.540,00	3.198.845,00	-595.695,00	-%15,70
6. Kapitulua	7.629.208,00	380.000,00	-7.249.208,00	-%95,02
9. Kapitulua	0,00	336.884,00	336.884,00	
GUZTIRA	22.745.876,00	15.285.464,00	-7.460.412,00	-%32,80

4. kapitulari dagokionez, dirulaguntza lerro hauetan gertatu dira jaitsierak:

- "Laguntza enpresa berriei" programa (-100.000 €)
- Hitzarmena UCEIFrekin, explorer programa (-10.000 €)
- Laguntzak kontrataziorako (-796.655 €)
- Hitzarmena GUREAKekin Eskualdeko Planeako enplegua sustatzeko proiektua garatzeko (-37.110 €).
- Laguntzak enpresa txiki eta ertainei (-80.000 €).
- Emakumeak Zientzian hitzarmena (-5.000 €).
- Hitzarmena Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin (-5.000 €).

Genero ikuspegitik, ez da positiboa Emakumeak Zientzian Hitzarmena desagerrarazi izana.

6. kapituluko jaitziera 2023an Talent House II programa gauzatu zelako gertatu da. Gaur egun, kapitulu horretan Trantsizio Energetikora (Next Generation) bideratutako aurrekontu zuzkidura baizik ez da gelditzen.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2024rako zuzeneko gastu eraldatzaile hau aurreikusten da:

- **Berdintasun Planean** jasotako jarduerak garatzeko: **5.000 €**.
- **Emakumeak zientzian eta berrikuntzan ikusarazteko** ekintzak: **10.000 €**.

Aurreko ekitaldiko ildo berean, Donostia Sustapena SAK sustatutako dirulaguntza lerro batzuen barruan emakumeei zuzendutako **ekintza positibo**en aurrekontu zuzkiduraren zenbatespena kuantifikatu da.

Modu horretan, **6 laguntza lerro identifikatu dira, emakumea izanez gero ekintza positiboak dituztenak**, ondoko xehetasunen arabera:

- **Lanbideren kontratatze**ko laguntzak. Laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat: lanaldi osoko kontratazio mugagabeetarako igoeraren zenbatekoa: 800 € edo 1.000 €, kolektiboak izanez gero; jendaurreko ekitaldietako lanaldi osoko artisten edo teknikarien aldi baterako kontratazioetarako igoeraren zenbatekoa: 600 € edo 750 €, kolektiboak izanez gero. **Zenbatespena: 22.350 €**.
- **Zaurgarritasun edo bazterkeria egoeran dauden** eta ibilbide espezifikoetan parte hartzen duten **langabeak kontratatze**ko laguntzak: laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat (igoera hori ez da soilik emakumeentzat, ezpada egoera jakin batzuentzat, horien artean emakume izatea): 600 €. **Zenbatespena: 4.800 €**.
- **Laguntzak enpresa berriak sortze**ko: laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat (igoera hori ez da soilik emakumeentzat, ezpada egoera jakin batzuentzat, horien artean emakume izatea): 150 €. **Zenbatespena: 4.800 €**.
- **Talentu Berritzaile**rako laguntzak: laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat: 1.000 €. **Zenbatespena: 5.000 €**.
- **Enpresa proiektu berritzaileak handitze**ko laguntzak: laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat: 1.000 €. **Zenbatespena: 12.000 €**.
- **Ekin+** laguntzak: Proiektu berritzaileak balioesteko, abiarazteko edo azkartzeko programa: laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat: 1.000 €. **Zenbatespena: 12.000 €**.

Ondorioz, eta kontuan hartuta emandako datu guztiak, zuzenekoak eta zenbatetsiak, aurten **Gastu eraldatzailearen** guztizkoa apaldu egin dela esan dezakegu, 2023an guztira **225.800 €** izan baitziren eta **2024an guztira 75.950 €** izango baitira. Beraz, **-% 66,36ko jaitsiera** izan da.

DONOSTIAKO SUSTAPENA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	125.500,00	15.000,00	-110.500,00	-%88,05
4. kapitulua	100.300,00	60.950,00	-39.350,00	-%39,23
GUZTIRA	225.800,00	75.950,00	-149.850,00	-%66,36

Jaitsiera hori ondoko murrizketek eta/edo desagerpenek eraginda dago:

- **Desagerrarazi da 2023an Emakume Ikertzaileentzako Laguntzetarako bereizitako 100.000 €-ko zenbatekoa.**
- **Desagerrarazi da Emaktiva Ekialdea programa (15.000 €).**
- **Lanbideren kontratatze**ko laguntzak **-11.950 €-an murriztu dira.**
- **Talentu berritzaile**rako laguntzak **-25.000 €-an murriztu dira.**

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Emakumeei zuzendutako **programen/dirulaguntzen eragina balioestea** eta horien zuzkidura handitzea, beharren arabera.
- ✓ **Emaktiva programa** hiriko beste auzo batzuetara **hedatzeko aukera balioestea**, beharren arabera.

5.4.3. DBUS.

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Dbus enpresa publikoak **58.287.949 €-ko aurrekontua** du 2024. urterako, eta beraz, **2023ko aurrekontuarekin alderatuta, -% 9,29ko jaitsiera du**. Udal aurrekontuetan % 12,05 hartzen du, eta beraz, pisu txikiagoa du 2023koarekin alderatuta (% 13,91).

2024rako **Udalaren ekarpena 35.280.000 €-koa** da gastu arruntean eta **10.199.943 €-koa** kapital gastuan. Aurreikuspenen arabera zerbitzuak emateagatik 2024an sortuko diren diru sarrerak 14. 676. 443 €-koak izango dira.

DBUS	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	34.584.234,00	36.598.252,00	2.014.018,00	%5,82
2. kapitulua	9.657.029,00	10.557.978,00	900.949,00	%9,33
3. kapitulua	46.000,00	35.000,00	-11.000,00	-%23,91
6. kapitulua	19.159.098,00	10.199.943,00	-8.959.155,00	-%46,76
8. kapitulua	0,00	89.116,00	89.116,00	
9. kapitulua	807.660,00	807.660,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	64.254.021,00	58.287.949,00	-5.966.072,00	-%9,29

6. kapituluko zuzkiduraren zatirik handiena **Next Generation funtsetan** oinarritzen da, eta autobus elektrikoak erosteko eta instalatzeko **Electricen proiektura** bideratuta dago.

Bestalde, kapitulu honetako jaitsiera batez ere aurreko urtean Next Generation funtsekin babestutako beste programa batzuk gauzatu direlako gertatu da, hala nola **emisio gutxiko eremuak sortzeko**, hiri garraioaren **eraldaketa digital iraunkorra bideratzeko** eta **Innobus-Tur** programa garatzeko programak.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2024. urteko ekitaldirako murriztu egin da Berdintasunerako III. Plana garatzeko aurrekontu zuzkidura, 50.000 €-tik (2023) 30.000 €-ra. Beraz, -% 40ko jaitsiera da.

DBUS	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	50.000,00	30.000,00	-20.000,00	-%40,00
GUZTIRA	50.000,00	30.000,00	-20.000,00	-%40,00

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasunerako III. Planaren inplementazioaren eragina eta emaitzak gizarteratzea eta ezagutaraztea.**

5.4.4. HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Azpiegiturak gastu politikan sartzen den **Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa** programa **+% 40,17an handitu da 2023koarekin alderatuta**, 1. 432. 213 € izatetik 2.007.543 € izatera igaro da. Aurrekontuetan duen pisua % 0,41n igotzen da.

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.158.574,00	1.170.043,00	11.469,00	%0,99
2. kapitulua	273.639,00	327.000,00	53.361,00	%19,50
6. kapitulua	0,00	10.500,00	10.500,00	
7. kapitulua	0,00	500.000,00	500.000,00	
GUZTIRA	1.432.213,00	2.007.543,00	575.330,00	%40,17

2. kapitulua igo egin da 2023koaren aldean +50.000 €-an handitu delako 226.09 Azterlan eta Lan teknikoak partida.

Partida berriei dagokienez, 6. eta 7. Kapituluetan biltzen dira:

- **601.01 partida:** Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa, 10.500 €-ko zenbatekoarekin.
- **733.01 partida:** Ekarpena Polloeri (kapital gastua), 500.000 €-ko zenbatekoarekin.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurreko urteko aurrekontuari eusten zaio, eta **226.99.02 partidan 25.000 €-ko** zenbatekoa esleitu da **puntu kritikoak** desagerrarazteko lanetatik etorritako gastuak ordaintzeko.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan genero klausulak txertatzeko.**
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak txertatzea.**

5.4.5 PROIEKTU ETA OBRAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Azpiegiturak politika gastuan sartzen den **Proiektu eta obrak** programa **+% 29,73 handitu da 2023ko ekitaldikoaren aldean**, eta 7.472.722 € izatetik 9.694.373 € izatera igaro da. Aurrekontu osoan duen pisua ere handitu egin da % 1,62tik % 2ra.

PROIEKTU ETA OBRAK	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.418.476,00	2.432.537,00	14.061,00	%0,58
2. kapitulua	87.404,00	87.404,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	4.966.842,00	7.174.432,00	2.207.590,00	%44,45
GUZTIRA	7.472.722,00	9.694.373,00	2.221.651,00	%29,73

Igoera hori batez ere **6. kapitulan** geratzen da. Hona hemen xehetasunak:

Proiektu eta obrak		7.174.432,00
601.01	Haizearen Orrazia birgaitzea	650.000,00
601.02	Estalkia	300.000,00
601.04	Kontxako baranda 2. fasea	287.810,00
601.05	Sagues berrurbanizatzea	150.000,00
601.06	Kontxako barandaren azken fasea	600.000,00
601.07	Herreran puntu kritikoa	300.000,00
601.08	Puntu kritikoa hobetu, Misericordia kalea	200.000,00
601.09	Bera Berako urbanizazioa	950.000,00
601.10	Sorleku parkea / Parque Sorleku	66.000,00
601.12	Añorga zeharbidea berrurbanizatzea, 2. fasea	690.622,00
601.13	Anoetako urbanizazioa	500.000,00
601.14	Anoetako urbanizazioa (3.fasea)	1.400.000,00
622.01.01	Nao etxea	550.000,00
643.01	Segurtasuna eta osasuna koordinatzea	230.000,00
643.02	Ikerketak eta proiektuak	300.000,00

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2023an gauzatu ez zenez, guztira **500.000 € esleitu dira gastu eraldatzaileetan**, honako **puntu kritiko** hauek desagerrarazteko:

- 200.000 € Misericordia kaleko puntu kritikoa hobetzeko.
- 300.000 € Herrerako puntu kritikorako.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun arloak antolatutako **barne prestakuntzetan parte hartzea kontratazioan eta dirulaguntzetan genero klausulak txertatzeko.**
- ✓ Klausula horien **ezarpenaren eta eraginaren gaineko jarraipen neurriak txertatzea.**
- ✓ **Genero ikuspegitik eragin positiborik handiena duten inbertsio proiektuak lehenestea.**

5.5. JARDUKETA OROKORRAK

Gastuen arlo honetan **programa bat aztertu da**: Herritarren parte hartzea.

5.5.1. HERRITARREN PARTE HARTZEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Zerbitzu orokorrak gastu politikan sartzen den **Herritarren parte hartzea** programa **+% 30,40an handitu da 2023ko ekitaldikoaren aldean**, eta 2.793.293 € izatetik 3.571.996 € izatera igaro da. Aurrekontuetan duen pisua ere handitu egin da % 0,59tik % 0,74ra.

HERRITARREN PARTE HARTZEA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	387.136,00	391.080,00	3.944,00	%1,02
2. kapitulua	300.700,00	247.700,00	-53.000,00	-%17,63
4. kapitulua	93.074,00	593.074,00	500.000,00	%537,21
6. kapitulua	1.958.383,00	2.048.968,00	90.585,00	%4,63
7. kapitulua	0,00	291.174,00	291.174,00	
GUZTIRA	2.739.293,00	3.571.996,00	832.703,00	%30,40

2. kapituluko jaitsierari dagokionez, -53.000 €-an apaldu da, eta partida garrantzitsuenetan gertatu da hori, 226.99 Bestelako gastuak partida sortan. Izan ere, parte hartzeko prozesua 2023an eraman zen burura, eta ondorioz, **partida hauek desagertu dira** 2024an:

- 226.99.10 Partaidetzako aurrekontuak, 40.000 €-ko zenbatekoarekin eta
- 226.99.05 Sektorearen – biztanleriaren parte hartzea, 15.000 €-ko zenbatekoarekin.

Eta **apaldu egin da 226.99.04 Herritarren partaidetzarako udal zeharkakotasuna** partida, 2023an 80.000 € izan baitzituen eta 2024an 63.000 € (-17.000 €).

Bestalde, **+2.000 €-an handitu da 226.99.02 Lurralde partaidetza** partida eta **+17.000 €-an 226.99.06 Asoziazionismoa sustatzea** partida.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.99	Bestelako gastuak	216.000,00
226.99.02	Lurralde partaidetza	93.000,00
226.99.03	Asoziazionismoa sustatzea	35.000,00
226.99.04	Partaidetzarako udal zeharkakotasuna	63.000,00
226.99.05	Sektore eta biztanleria partaidetza	0,00
226.99.06	Sektore eta gai partaidetza	10.000,00
226.99.09	Herri galdeketa	15.000,00
226.99.10	Partaidetzako aurrekontuak	0,00

4. kapituluaren barruan, igoera bere osotasunean gertatzen da partida berri batean, 434.01 Igeldoko Tokiko Entitate txikiari diru ekarpena partidan, 500.000 €-ko zenbatekoarekin.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
481.01	Igeldoko Tokiko Entitate txikiari diru-ekarpena	500.000,00
481.01	Dirulaguntzak eta hitzarmenak	70.374,00
481.02	Zubietako Batzorderako transferentzia	5.000,00
481.04	Igeldoko Herri Kontseilurako dirulaguntza	7.000,00
481.05	Osteguna-Irale Auzo Elkarte	3.500,00
481.08	Parte Zaharreak bizi auzo elkarterako dirulaguntza	7.200,00

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Eutsi egiten zaio prozesu parte hartzaileetan berdintasuna sustatzeko **10.000 €-ko zuzkidurari**. 2024. urteko ekitaldiari begira, Donostiako emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planaren diseinuan zentratuko da parte hartzeko prozesua.

Bestalde, 2024an garatu beharreko **neurri osagarri** jakin batzuk identifikatzen dira:

- Genero ikuspegia txertatzea Aholkularitza Kontseiluen aldi berrian zehar.
- Udaleko prozesu parte hartzaile guztietan zuzeneko lankidetzaren Berdintasun Arloarekin.

● **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun Arloarekin **lankidetzaren ildoari eustea eta indartzea esparru estrategikoak** inplementatzean (Berdintasunerako V. Plana, Ekialdeko Barrutia, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Mugikortasun Plana, Aholkularitza Kontseiluak, etab.).

5.5.2. LANGILEEN BARNE KUDEAKETA

2024ko aurrekontuaren baitan, Udaleko langileen barne prestakuntzari eta kudeaketari lotuta, ondoko **gastu eraldatzaile** hau aurreikusi da:

- **31.000 € barne prestakuntzarako berdintasun gaian.**
- Giza Baliabideen aurrekontu programako 226.10 partidan **18.150 €** Donostiako Udaleko emakumeen eta gizonen **berdintasunerako barne Plana** egiteko.

6. GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA ETA LABURPENA

Donostiako Udaleko “Aurrekontuen azterketa txostenetan” 2017tik behin eta berriz jaso diren datuetatik bat izan da gastu eraldatzaileak aurrekontu osoan duen ehuneko eta zenbatekoa. **Genero desberdintasuna bermatzen den oinarrizko egiturak hausten eta desberdintasunak eragiten eta sorrarazten dituzten mekanismoak desegiten laguntzen duen gastua da Gastu eraldatzailea.**

Ondoko taulan islatzen da 2017ko ekitalditik datu hauek izan duten eboluzioa (ez dira aurreko txostenetako datuak jaso ez dituztelako alderatzeko moduko datuak eskaintzen):

- Berdintasun programaren aurrekontuaren zenbatekoa.
- Berdintasun programaren aurrekontuaren %-koa Udalaren aurrekontu osoaren gainean.
- Berdintasun arloko partidak dituzten arloen kopurua (gastu eraldatzailea).
- Gastu eraldatzailearen urteko zenbatekoa.
- Gastu eraldatzailearen %-koa Udalaren aurrekontu osoaren gainean.

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Berdintasun Programaren Aurrekontua	747.661 €	898.190 €	966.041 €	1.004.374 €	1.087.353 €	1.127.103 €	993.647 €	1.078.736 €
Berdintasunaren Aurrekontua (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean	%0,18	%0,20	%0,21	%0,23	%0,27	%0,27	%0,22	%0,22
Berdintasun arloko partidak dituzten sail kopurua	13	13	13	14	13	13	20	20
Gastu eraldatzailearen zenbatekoa	1.590.538 €	1.839.312 €	2.002.711 €	2.220.903 €	2.453.343 €	2.808.568 €	3.581.687 €	3.882.397 €
Gastu eraldatzailea (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean	%0,38	%0,41	%0,43	%0,49	%0,61	%0,66	%0,78	%0,81



Ekitaldi honetan positiboki nabarmendu behar da gatu eraldatzaileak aurrekontu globalen gainean hartzen duen portzentajea, ehuneko 0,03an handitu baita. Beraz, 2024an, aurrekontu osoaren % 0,81 hartzen du.

Bestalde, berdintasun programari dagokionez, zenbateko globalean handitu egin da, baina aurrekontu orokorretan duen pisua 2023ko ekitaldikoaren parekoa da, eta aurreko urteetako baino apalagoa.



Lanean jarraitzeko gomendioa egiten dugu berdintasun arloko partida espezifikoak dauzkaten administrazio unitateen kopuruak handitzen jarraitzeko eta analisia programa berrietara zabaltzeko. Era berean, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 15ko 1/2023 Legegintzako dekretuaren 15.1 artikulua EAEko aurrekontuak xede dituen arren, helburua izan behar du *“gutxienez aurrekontuen % 1 ematea emakumeen eta gizonen berdintasun politikak garatzeko”* (%1,5era handitzea 2030erako).

Jarraian irudikatzen dira **Berdintasun programaren eta Gastu eraldatzailea programaren aurrekontu zuzkiduraren eboluzioa azaltzen duten grafikoak.**

BERDINTASUN PROGRAMAREN AURREKONTUAREN EBOLUZIOA



GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA



Azkenik, **2024. urterako aurrekontuz hornituriko gastu eraldatzailearen** laburpena aurkezten da, **aurrekontu osoaren gainean % 0,81 hartzen duena:**

UDAL AURREKONTUEN GASTU ERALDATZAILEA 2024						
Unitatea	1. kapitulua	2. kapitulua	4. kapitulua	6. kapitulua	GUZTIRA	Aurrekontua guztira (%)
Berdintasuna	471.540,00	332.971,00	224.225,00	50.000,00	1.078.736,00	%0,22
Udaltzaingoa		2.880,00			2.880,00	
Hiri mugikortsuna		500,00		40.000,00	40.500,00	
Hirigintza				15.000,00	15.000,00	
Lankidetzeta eta Garapenarako hezkuntza			1.063.626,00		1.063.626,00	
Gizarte Ekintza	218.568,77	10.200,00		251.945,00	480.713,77	
Musika eta Dantza Eskola		6.500,00			6.500,00	
Heziketarako programak		63.240,00	6.833,00		70.073,00	
Giza eskubideak		29.000,00			29.000,00	
Kultur aniztasuna		8.944,00			8.944,00	
Donostia Kultura		72.629,00			72.629,00	
Euskara		11.000,00			11.000,00	
Gazteria		40.000,00		75.000,00	115.000,00	
Donostia Kirola			212.000,00		212.000,00	
Donostia Turismo		500,00			500,00	
Donostia Sustapena, S.A.		15.000,00	60.950,00		75.950,00	
Dbus		30.000,00			30.000,00	
Hiri mantentze eta zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
Proiektu eta obrak				500.000,00	500.000,00	
Herritarren parte hartzea		10.000,00			10.000,00	
Udal langileen berdintasuna arloko prestakuntza	31.000,00				31.000,00	
Barneko berdintasunerako Plana (Giza Baliabideak)		18.150,00			18.150,00	
GUZTIRA	721.108,77	676.514,00	1.567.634,00	931.945,00	3.897.201,77	%0,81